

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

ANDOAIN

2020 – 2025



ANDOAINGO UDALA

AURKIBIDEA

1. SARRERA: AURREKARIAK ETA PROZEDURA
2. OINARRI NAGUSIAK: LEGE ARAUAK ETA PRINTZIOPIO GIDARIAK
3. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBO ETA KUALITATIBO OROKORRETIK ABIATUTA, HOBEKUNTZA-BIDEA EGITEKO LAN ILDOAK
 - 3.1. BEGIRADA KUANTITATIBOA
 - 3.1.1. Biztanleriaren bilakaera
 - 3.1.2. Euskara gaitasuna
 - 3.1.3. Lehen hizkuntza
 - 3.1.4. Euskararen erabilera
 - 3.1.5. Hezkuntza ez unibertsitarioa
 - 3.1.6. Helduen euskalduntzea
 - 3.2. BEGIRADA KUALITATIBO ETA HOBEKUNTZETARAKO BIUDEA
 - 3.2.1. Familia bidezko transmisioa
 - 3.2.2. Irakaskuntza eta eskola
 - 3.2.3. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea
 - 3.2.4. Esparru sozio-ekonomikoa, oro har
 - 3.2.5. Kirola eta aisia, oro har
 - 3.2.6. Kulturgintza: sorkuntza eta hedakuntza
 - 3.2.7. Komunikazioa
 - 3.2.8. Etorri berriak eta kulturartekotasuna
 - 3.2.9. Administrazioa
 - 3.2.10. Sentiberatzea, motibazioa(k), aktibazioa
 - 3.2.11. Kanpo proiektzioa
4. PLAN ESTRATEGIKOA (2020 - 2025): JARDUN ESPARRUAK, HELBURUAK ETA NEURRIAK
 - 4.1. HELBURU NAGUSIA
 - 4.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK
 - 4.3. JARDUN ESPARRUAK
 - 4.4. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK
 - 4.5. HELBURUAK ETA LAN ILDOAK ESPARRUZ ESPARRU
 - 4.6. LEHENTASUN NAGUSIAK
5. ADIERAZLE PANELA
6. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

1. SARRERA: AURREKARIAK ETA PROZEDURA

Andoaingo Udalak 2010eko abenduan onartu zuen “Andoaingo Euskararen Biziberritze Plan Nagusia”, zeinaren oinarria Euskararen Aholku Batzordeak, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak 1999an EAerako onartu zuten EBPN baitzen. Orduz geroztik aipatutakoa izan da Andoaingo Udalak euskararen erabilera sustatzeko garatu dituen politiken Plan Estrategikoa. Izan ere, bi ardatz nagusiotan egituratzen da aipatutako Plana: alde batetik, udalerrian euskararen erabilera areagotzera zuzendutako jardunbidea eta, bestetik, udal administrazioaren beraren egitura eta funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzera zuzendutakoa. Eta ardatz horien garapenerako beharrezko diren urtez urteko kudeaketa planak eta udalean euskararen erabilera normalizatzeko bi egitasmo onartu eta aplikatu dira hamarkada honetan.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez 2009an onarturiko “Itun berritu baterantz” izeneko dokumentuan finkatutakoa betetzeko helburuarekin, Euskararen Aholku Batzordeak EBPNren berrikuspena egin eta onartu zuen bi fasetan 2012-2014an. Aipatu berrikuspenean emaitza izan zen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana deituriko Plan Estrategikoa, Euskararen Aholku Batzordeak ez ezik, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak ere bere egin zutena. Hamar urteko iraunaldia du EAerako onarturiko ESEPe. Horrela, bada, Andoaingo Udalak datozen bost urteetarako onartu duen ESEP honek hain zuzen ere aipatutako EAeko ESEP du oinarritzat. Izan ere, garrantzitsua eta eragingarria irizten baita herri-aginteen eta askotariko eragileen estrategiak bateratuta jardutea udalgintzan zein gizarte bizitzan euskararen erabilera sustatzeko prozesuan. Horregatik plangintza honen egitura osatzen duten hamabi esparruak dira EAeko ESEPe esparruen egokitzapena, zeina egin baita Andoaingo ezaugarriak kontuan hartuz.

Andoaingo ESEP (2020 – 2025) egiteko prozesuan honako urrats hauek eman dira:

- 2010eko abenduaz geroztik indarrean dagoen EBPNren testuinguruan Udalak Andoaingo gizarte bizitzan euskararen erabilera sustatzeko garatu dituen ekintza-programen azterketa eta bere eragingarritasunari buruzko gogoeta egin da.

- Euskara Andoaingo gizarte-bizitzan izaten ari den bilakaerari buruzko gogoeta egin da, datu kuantitatibo orokorrak eskuratu ez ezik datu horien gaineko ikuspegi kualitatiboa ere landuz.

- Aurreko puntuetan aipatutako azterketatik abiatuta eta EAeko ESEP orokorrak arloz arlo finkaturiko helburuak kontuan hartuz, Andoaingo ESEPerako lehentasunen gainean hausnartu da.

- Aurreko hiru paragrafoetan aipatzen den gogoeta, lehenik eta behin Udala Euskara Zerbitzuak egin du, baina udalerriko hainbat eragilerengana ere zabaldu da ondoren, hain zuzen ere ESEP hau egiterakoan Udalez kanpoko iritziak eta ikuspegiak ere kontuan hartu nahi izan direlako eta hainbat eragileren parte hartzea ere ahalbidetu nahi zan delako. Horrela, bada, aurrez aurreko elkarrizketak egin zaizkie Andoaingo gizarte-bizitzan, esparru batean edo bestean, eragile diren hainbat herritarri: arlo sozioekonomikoan, merkataritzan, kulturagintzan, aisialdian, kirolgintzan, hezkuntzan, hedabideetan, zerbitzu sozialetan eta politikagintzan, udalean nahiz udaletik kanpora, diharduten herritarrak dira elkarrizketatuak. Elkarrizketetan guztiei egin zaien galdera nagusia honakoa izan da: “zer da, zure iritzian, Andoainean euskararen erabilera sustatu eta areagotzeko egin beharko litzatekeena eta zer da lehenetsiko zenukeena?”.

- Udaleko Euskara Zerbitzuak, EMUNen aholkularitzaz baliatuta, prestatu du ESEPen proiektua, zeina Udaleko ENBAK (Euskararen Normalizaziorako Batzordeak) luze-zabal aztertu duen.

- ENBAK aztertu ondoren, Udalerriko hainbat eragilerekin kontrastatu da proiektua, zeina Udal Plenoaren eztabaida eta onarpenera jarri den.

- Udalbatzak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2020ko ekainaren 25ean izandako ohiko batzarraldian, aho batez onartu du “Andoingo ESEP (2020-2025)” dokumentua.

- Andoingo ESEP (2020-2025) da datozen sei urteotan Udalak udalerrian eta udal jardunean euskararen erabilera sustatzeko garatuko dituen politika, programa eta ekintzen jardunbidea zehazten duen dokumentu estrategikoa. Dokumentu hau modu ireki eta malguan hartu behar da, aldiro-aldiro, beharrezko balira, egoki diren egokitzapenak eginez eta udalerriko eragile ezberdinek egin ditzaketan ekarpenekin aberastuko baita.

Dokumentu honetan ondorengoak jasotzen dira: Planaren oinarri nagusiak, euskararen diagnostikorako datu orokorrak, Planaren helburu nagusia eta arloz arlokako helburu estrategikoak, arloz arlokako neurriak, lehentasunak, adierazle panela eta exekuziorako zein jarraipenerako jarraibideak. Plan honetan jasotako helburu eta neurri/ekintzen garapenerako ekintzak urtez urteko kudeaketa-orrian zehaztuko dira. “Andoingo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018 - 2022)” (aurrerantzean, EEPLA), Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aldeko irizpenarekin Udalak 2018ko abenduaren 3an Osoko Bilkuran onartu zuena, ESEP honen zatitzat hartu behar da, bera baita ESEPeko arloen artean dagoen Administrazio esparruari dagokion atala.

2. OINARRI NAGUSIAK: LEGE ARAUAK ETA PRINTZPIO GIDARIAK

EAEko lege araudiari jarraiki, udalek legez aurreikusi eta babestutako eginbeharra dute euskararen erabilera normalizatzea eta udalaren jardun propioan zein udalerriko gizarte-bizitzako ezein arlotan EAEko hizkuntza ofizial bien benetako berdintasun praktikoa helburu dituen udal plangintza egin eta garatzea. Legezko betebeharrak horrek finkatzen duen testuinguruan kokatzen dira, beraz, Andoingo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020 - 2025) eta berorren atal bat (administrazio arloari dagokion atala) osorik betetzen duen EEPLA. Izan ere, Udalaren eskumenekoa baita udal funtzionamenduan eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzearen aldeko plangintza *ad intra* eta *ad extra* garatzea, betiere EAEko instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik eratorritako planifikazio eta erregulazio irizpideak errespetatuz.

Esandakoa kontuan hartuz, ondorengoak dira, bada, Andoingo ESEP (2020 - 2025) honen oinarriak eta, bide batez esanda, Andoingo Udalaren 2020 - 2025 urtealdiko hizkuntza politikaren printzipio gidariak:

- Euskadiko Autonomia Estatutua, zeinaren arabera, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Euskadiko hizkuntza ofiziala baita, gaztelania bezala, eta herritar guztiek dute euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, Erkidego Autonomoko erakunde komunei dagokielarik bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea.

- 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, (aurrerantzean, Euskararen Legea), zeinak herritarrei hizkuntza eskubideak

aitortzen eta herri aginteei, udalak barne, betebeharrak ezartzen baitizkie, hain zuzen ere, progresiboki, herritarren hizkuntza eskubideak praktikan errespetatuak izan daitezen eta euskararen erabilera gizarte-bizitza zabalean normaliza dadin.

- Andoaingo 1/88 Udal Ordenantza, Andoaingo Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituena, zeinetan finkatzen baitira Andoaingo Udalak *ad intra* eta *ad extra* egin eta garatu behar duen hizkuntza plangintzaren jardunbide orokorra nahiz modu iraunkorrean bete behar dituen neurriak.

- 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea, uztailaren 6koa, eta 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena (ikus EEPLA).

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (aurrerantzean, Udal Legea), zeinetan askotariko oinarriak baitaude ezarrita udalek apustu argia egin dezaten bai udalaren funtzionamenduan eta baita ere udalerriko gizarte bizitzan euskararen normalizazioa eta garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak gainditzearen alde eta beren jardun-eremuan (udalean eta udalerrian, alegia) euskararen erabilera babestu eta sustatze lanetan eredu eta gidari izan daitezen, betiere bermatuz herritarrek duten eskubidea beraiek aukeratutako hizkuntza inolako eragozpenik gabe erabiltzeko eta udalak hizkuntza hartan arta ditzan. Udal Legean “euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen zaizkie udalei, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizitzaren eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko, baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere, eta aukera, orobat, euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko”. (Ikus zioen azalpena). Halaber, nabarmentzekoa da Udal Legeak Udalen eskumen propiotzat jotzen duela honakoa: “Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera”. (Ikus 17. 26). artikulua).

Aurrekoaren bidean, ESEP honen oinarrien argibide moduan azpimarratzekoak dira 7. artikuluko 2), 3), 4) eta 5) puntuetan xedatutakoak, honakoak hurrenez hurren: “udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko (...) eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz”; “Udalerriei dagokie, halaber, beren lurralde eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, toponimoen eta leku geografikoen gaineko prozedura arautu eta haiek onartzea (...) idazkeraz dagokion hizkuntzaren arau akademikoak errespetatuko dira, eta euskararen kasuan, Euskaltzaindiak ezarrita indarrean dauden hizkuntza-arauak”; “Udalerriek euskararen erabilerean eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz”; “Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte”.

- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Dekretu hori da hain zuzen ere aipatu berri dugun Udal Legearen eta Euskararen Legearen garapenerako zehaztapenak ematen dituena toki-administrazioetako hizkuntza normalizazioari dagokionez, Dekretu horretan ezartzen baitira toki-erakundeen hizkuntza ofizialen erabilera-arauak eta toki-administrazioen eremuan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko jarraibideak. Dekretuari jarraiki, ondorengoak dira,

beraz, Andoaingo Udalaren sei urteotarako hizkuntza politikaren printzipio gidariak, ESEPen oinarri direnak:

Helburua da “euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea tokiko administrazioan, euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa normaltasunez eta orokorrean erabil dadin. (...) herritarrek euskara erabil dezaten zaintzea eta sustatzea. (...) Udalaren eremu sozialean herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeari dagokionez, benetako berdintasuna lortzea”. (Ikus 1. artikulua).

Printzipio gidari gisa nabarmendu behar dira ondorengoak:

- “EAEko toki-entitateen jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da. (...) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea”. (Ikus 5. artikulua eta EEPLA).

- “Udalei autonomia aitortzen zaie euskararen erabilera sustatzeko eta dinamizatzeko, bai eta beren hizkuntza-normalizazio instituzionala eta soziala lortzeko prozesua diseinatzeko ere”. (...) Hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak abiaraztea, hizkuntza-aniztasuna sustatzea eta atzerapausorik ez ematea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta. (...) Efikaziaren, efizientiaren eta proportzionaltasunaren printzipioak” aplikatuko dira. (...) “Euskadiko toki-entitateek modu planifikatuan jardungo dute euskararen erabilera instituzionala eta soziala bermatzeko”. (Ikus 5. artikulua). “Euskadiko Toki-entitateek euskara babesteko, laguntzeko, bultzatzeko eta sustatzeko jarduerak egingo dituzte, beren eskumen-eremu guztietan” (Ikus 5. artikulua eta Udal Legearen 17. artikulua, non udalen eskumen propioak zerrendaturik baitaude).

Eskumen propioak baliatzeari dagokionez, nabarmendu behar dira ondorengo printzipioak: “Hizkuntza-eremuko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakar hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa. (...) Hizkuntza-eremuko udal-eskumen propioa: arauak emateko edo ordenatzeko, antolatze, programatzeko, sustatzeko, kudeatzeko eta betearazteko funtzioen edo ahalen bitartez egikaritze da. (...) Udalek euskararen ezagutza sustatu eta haren erabilera dinamizatuko dute beren lurralde-eremuan egiten diren jardueretan. (...) Udalerriek neurriak planifikatuko dituzte euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal-eremuan, arlo hauetan bereziki: bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturaren, elkarte-jardueretan, kirolean, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu jardueretan, udal-eremuko prentsan eta prestakuntzan”. (Ikus 8. eta 10. artikulua).

Dirulaguntzei dagokienez, honako printzipio hauek azpimarratzen ditugu: “Euskadiko toki-entitateek beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeaz gain, erabilera ere dinamizatuko dute, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz edota beste pertsona edo entitate batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko egiten dituzten jardueren finantzaketan lagunduz. (...) Euskara sustatzeko irizpideak aplikatuko dituzte hizkuntzen erabilera alderdi esanguratsua denean diruz lagundutako jardueraren xederako. (...) Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari. (...) Dirulaguntzen oinarriko araudiaren arabera zuzeneko dirulaguntzak, hobariak eta salbuespen fiskalak ezarri ahalko dituzte (Euskadiko toki-entitateek), hizkuntzen erabilera normalizatzeari eta sustatzeari lotutako ekitaldiak antolatze”. (Ikus 38. eta 58. artikulua).

Azkenik, Dekretuarekin ez ezik Europako Eskualde edo Eremu Urriko Hizkuntzen Kartarekin ere (7. 2. artikulua) bat etorritik, Andoaingo Udalaren eta, zehazki, ESEPen

printzipio gidaria da ekintza positiboaren printzipioa. Hortaz, Dekretuaren 5. 2. artikuluan jaso bezala, Andoaingo Udalak "neurriak hartuko ditu euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabilera kaltetzen duen edozein bereizketa, bazterketa, muga edo justifikaziorik gabeko lehenespen ere ezabatzeko. Euskararen alde hartzen diren neurri bereziak -euskaldunen eta beste hizkuntza ofizialaren hiztunen artean berdintasuna sustatzeko eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko- ez dira joko gaztelaniaz aritzen direnak baztertzeko egintzatzat".

ESEPen printzipio gidaria da, beraz, Andoaingo herritarren hizkuntza eskubideak eta bi hizkuntza ofizialen arteko hizkuntza aukera egiazki errespetatzea eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzen den hizkuntza gero eta biziagoa izateko bidea egitea ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handiena baliatuz, euskara Andoaingo herritar guztien ondarea ez ezik gero eta herritar gehiagok gehiagotan erabiltzen duen hizkuntza bizia ere izan dadin.

Andoaingo Udalaren hizkuntza politikan eta, zehazki, ESEPen garapenean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa zeharkako ardatz gisa hartuz. ESEPen aplikazioan, beraz, aipatutako zeharkakotasun kontsiderazioa izango du genero berdintasunak.

3. DIAGNOSTIKO Kuantitatibo eta KUALITATIBO OROKORRETIK ABIATUTA, HOBEKUNTZA-BIDEA EGITEKO LAN ILDOAK

Euskararen ezagutzak eta erabilerak Andoainen duten tamaina eta nolakotasunaz bada hainbat azterlan. Helburua ez da azterlan haietako guztietako datu nagusiak edo laburpenak hemen txertatzea, ez baita hori dokumentu honen egitekoa eta, gainera, dokumentu hau asko luzatzea ekarriko bailuke halakorik egiteak. ESEPen jasotzen dena, beraz, ikuspegi orokorra baino ez da, elementu kuantitatiboak zein kualitatiboak kontuan hartuz abiapuntu gisa balio dezakeelakoan osaturiko ikuspegi orokorra da, ez besterik. Euskarak Andoainen duen egoera eta bilakaeraz informazio gehiago eta zehatzagoa jasotzeko, ikus helburu horrekin berariaz egindako azterlanak.

3. 1. BEGIRADA Kuantitatiboa

3.1.1. Biztanleriaren bilakaera

2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren¹ arabera, 14.859 biztanle ditu Andoainek, 1981ean baino 1.421 gutxiago. Izan ere, 16.280 biztanle zituen Andoainek duela 35 urte. Hortaz, % 8,7 behera egin du biztanleriak. Gipuzkoak eta EAEk, edo Buruntzaldeak eta Donostialdeak, aldiz, hazkundeak izan dituzte, hori bai, oso hazkunde txikiak izan dira.

Sexuari dagokionez, oso antzeko portzentajeak osatzen dituzte gizonak eta emakumeak, horrela izan da azken hamarkadetan, pixka bat gehiago izanik, nolana ere, emakumeak: zehazki, 2016ko biztanleen % 50,48 emakumeak dira eta % 49,52 gizonak.


¹ Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren egilea EUSTAT da.

Zahartze prozesuak eragin nabarmena izan du Andoaingo biztanleriarengan. 0-19 urte bitartekoen eta 65 urte edo gehiago dituztenen arteko aldea 3 puntura jaitsi da: izan ere, 0-19 urte bitartekoek % 22 osatzen dute, eta 65 urte edo gehiagokoek % 19. Aldiz, kontuan hartzekoa da, duela 35 urte, 1981ean alegia, 32 puntuko aldea zegoela bi adin talde horien artean eta gazteena zela portzentaje handiena (% 38,8) zuen adin-tartea. Datu hau erabakigarria da euskarak Andoainen izan duen hazkundearen neurriaz -eta neurri horren garrantziaz- jabetzeko. Izan ere, Andoainen, Euskal Herri osoan bezala, euskararen hazkundera adin talde gazteenen artean gertatu baita nagusiki, hazkundera beharrean beherakada nozitu duten adin taldeetan alegia.

Biztanleriaren bilakaerari dagokionez, merezi du atzerriko migrazioaren eboluzioari erreparatzea. Biztanleen Udal Erroldaren Estatistikaren arabera, 2016an biztanleen % 4,85 atzerritarra da Andoainen (721 herritar) eta 2001ean, duela 15 urte, % 0,92 ziren atzerritik etorritakoak (131 herritar). Sexuaren arabera portzentajeetan ez dago aldaketarik (% 50na). Udal erroldako datuen arabera badakigu atzerritarren kopurua mantendu egin dela azken hiru urteotan, gorantzako joerarekin. Izan ere, 2019an, atzerritik etorritako 922 lagun bizi dira Andoainen, herritarren % 6,2.

3.1.2. Euskara gaitasuna

Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera (Eustat), 2016an, bi urte edo gehiagoko herritarretatik % 56,33 dira euskaldunak², % 17,68 dira euskaldun hartzaileak³ eta % 25,99 dira erdaldunak⁴.



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistika

ESEP honen aurreko Plan estrategikoa (EBPN) abian jarri zenetik (2011tik 2016ra bitarteko sei urteetan, alegia) 4 puntu gora egin du euskara gaitasunak. 2011n 52,37 ziren euskaldunak; 2016an, berriz, % 56,33. Erdaldunen portzentajeak ere pixka bat gora egin du, puntu bat, 2011n % 24,61 izatetik 2016an 25,99 izatera pasatu baitira.

² ESEP dokumentuaren ondorioetarako, "euskalduna" da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertu eta hitzegiteko gai dena.

³ ESEP dokumentuaren ondorioetarako, "euskaldun hartzailea" (pasiboa) da euskaraz ondo ulertu bai baina hitz egiteko gai ez dena, edo ondo ulertu ez arren zailtasunez bada ere zerbait hitz egiteko gai dena.


⁴ ESEP dokumentuaren ondorioetarako, "erdalduna" da gai ez dena euskaraz ulertzeko ez eta hitz egiteko ere.

Bistan da euskaldun hartzaileen portzentajea jaitsi dela, % 23,01etik % 17,68ra. Nabarmentzekoa da euskaldunen portzentajeak etengabe eta modu iraunkorrean gora egin duela 1981az geroztik.

Adinari dagokionez, euskaldunen portzentajerik handienak adin-talde gazteetan kontzentratzen dira. 25-29 urte bitartekoan % 71 euskalduna da, eta are gehiago dira euskaldunak 25 urtetik beherakoan artean. Esate baterako, 20 urtetik beherako gazteen % 93 euskaldunak dira.

3.1.3. Lehen hizkuntza

Andoaingo bizilagunen % 32ren lehen hizkuntza euskara da eta beste % 6k euskara eta gaztelania biak ditu lehen hizkuntza (iraganean ama hizkuntza deiturikoa): guztira, beraz, %38 dira euskara, bakarrik edo gaztelaniarekin batera, etxean eskuratu dutenak. Herritar gehienek, zehazki % 59k, gaztelania bakarrik dute lehen hizkuntza (eta beste % 6k euskararekin batera): guztira, beraz, % 65. Migrazioaren eraginez, herritarren % 3k beste hizkuntzaren bat du lehen hizkuntza.




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistika

Azken 20 urteetan, zehazki 1996tik 2016ra bitartean, pixka bat gutxitu dira euskara bakarrik lehen hizkuntza dutenak, baina erruz hazi dira euskara eta gaztelania biak batera dituztenak (% 30 gehiago dira). Eta ez euskara ez eta gaztelania dutenak, beste hizkuntzaren bat baizik, % 74 hazi dira denbora berean.

3.1.4. Euskararen erabilera


Euskararen osasunaren berri izateko, beste edonon bezala Andoainen ere giltzarri dira erabilerearen tamaina eta nolakotasuna. Askotarikoak dira, eta ez gutxi, erabilerearen eragiten duten faktoreak. Hemen, bi arlotako erabilerearen erreferentzia jasotzen da: Andoaingo etxeetako euskararen erabilera eta kaleetan entzuten dena.



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistika

2016ko datuen arabera, Andoaingo bost urte edo gehiagoko herritarren % 24,37k euskara erabiltzen du etxean eta % 15,33k euskara eta gaztelania. Herritarren % 57,87k gaztelania bakarrik erabiltzen du. Guztira, beraz, bost urte edo gehiagoko 5.344 herritar dira (% 39,7) etxean euskara erabiltzen dutenak. Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 80 urtetik gorakoak eta 24 urte bitartekoak dira. Euskaldunen %43,3k euskara eta % 25,6k euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte etxean. Etxean haurtzaroan euskara -bakarrik edo gaztelaniarekin batera- eskuratu zutenak dira euskaldunen artean euskara gehien erabiltzen dutenak: euskaldun zaharrek eta berriek etxean egiten dituzten hizkuntza erabileretan aldeak handiak dira.

Kale-neurketen bilakaera Andoainen (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, kale erabileraren neurketa 2016


2016koa da Andoaingo kaleetan entzuten den euskararen neurria jakiteko bost urtez behin Soziolinguistika Klusterrak egiten duen ikerketaren orain arteko azken neurketa. Ikerketa horren arabera, 2016an alegia, kalean entzundako elkarrizketa guztien % 21,6 euskaraz egin ziren. Bost urte lehenago, 2011n, elkarrizketetako % 16,6 ziren euskaraz. Beraz, bost urtean bost puntu hazi da euskarazko elkarrizketen kopurua kalean. Elkarrizketa horietan gazteenak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak; zenbat

eta gazteagoak izan, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara. 2-14 urte bitartekoen % 30etik 65 urtetik gorakoen % 15era progresiboki jaisten da euskarazko elkarrizketa kopurua. Nolanahi ere, euskarazko elkarrizketa kopururik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin ari direnean gertatzen dira eta, aldiz, kopururik txikienak nagusiak beraien artean bakarrik ari direnean. Sexuen artean ez dago diferentzia handirik, aldea da 1,3 puntukoa: emakumeak (% 22,2) eta gizonak (% 20,9).

3.1.5. Hezkuntza ez unibertsitaria

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitario osoan, 2017/2018 ikasturtean, 3.153 ikasle daude matrikulatuta Andoaingo ikastetxeetan. Hizkuntza erduei erreparatuta nabarmena da D ereduaren nagusitasuna (2.600 ikasle, hots, % 82,6). A ereduko ikasleak 358 dira, hots, % 11,35, eta B eredukoak 195 dira, hots, % 6,18. A ereduaren presentzia batez ere lanbide heziketan kontzentratzen da, zehazki goi mailako zikloetan (Andoaingo A ereduko ikasle guztien % 74,8 Goi Mailako Zikloetan ari da). Aldiz, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasle guztiak, % 100, D ereduan ari dira.


Hizkuntza erduen bilakaera Andoainean (%)



Iturria: Andoaingo Udala (Euskara Zerbitzua)

Hizkuntza erduek hasiera beretik bilakaera etengabea izan dute D ereduaren hazkundearen mesedean. 1983/1984 eta 2017/2018 ikasturteen artean ikus litekeenez: A eredua % 62tik % 11,35era jaitsi da; B eredua % 17,6tik % 6,8ra; D eredua % 20,4tik % 82,6ra hazi da.

3.1.6. Helduen euskalduntzea



Iturria: HABE

2017/2018 ikasturtean 171 ikasle matrikulatu dira Andoaingo euskaltegian aurrez aurreko klaseetan zein autoikaskuntzakoetan. Andoaingik kanpoko euskaltegi homologaturen batean matrikulatu diren Andoaingo bizilagunak 113 dira. Hortaz, Andoaingo 284 bizilagun (Andoainen erroldatuta daudenak esan nahi da) matrikulatu dira euskaltegiaren batean 2017/2018 ikasturtean. Andoaingo bizilagun diren ikasle horietatik guztietatik, beraz, % 60,2 Andoaingo AEK euskaltegian matrikulatu dira eta beste % 39,8 Andoaingik kanpoko euskaltegi homologaturen batean.

Nabarmentzekoa da, 2018an 54 andoaindarrek parte hartu dutela Mintzalaguna egitasmoan, 47 emakume eta 7 gizon.

3. 2. BEGIRADA KUALITATIBOA ETA HOBEKUNTZETARAKO BIDEA

2020 - 2025 urtealdirako ESEPen eskutik Udalak garatuko duen hizkuntza politikan pisu esanguratsuenaren ematen esparruei begirada kualitatibo bat ematen zaie jarraian, betiere goiburua moduan kontsideratuz euskara biziberritzeko estrategietan eta plangintzan oinarri guztien oinarri nagusia honako bikote honek osatzen duena dela: transmisioa eta erabilera.

3.2.1. Familia bidezko transmisioa. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko biziraupena familiako transmisioari zor zaio neurri handienez. Familiako transmisioa nahitaezko (lehen) baldintza da euskararen biziraupenerako, hizkuntza indartsuagoen ondoan bizi diren hizkuntza guztien kasuan den bezala. Euskararen bizi-indarra, berriz, erabilerari lotzen zaio zuzen-zuzenean. Eta erabileran eragiten duten faktoreak asko eta askotarikoak dira. Euskararen gaineko ikerketa soziolinguistikoek agerian jartzen dute euskararen erabileraren eta lehen hizkuntzaren (etxean bizitzako lehen urteetan eskuratutako hizkuntzaren) arteko lotura estua. Andoainen dagoeneko urteak dira familia bidezko euskararen transmisioaren arloa lantzeari ekin zitzaioela, sensibilizazioaren bidetik eta, Udalaren eta eskolen arteko lankidetzaren eskutik, gurasoentzako ikastaro, hitzaldi eta ekintza espezifikoko antolatuz, besteak beste.

Udalak hala erabaki eta enkargatuta, 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familietan transmisioaren gaineko azterlan handi bat burutzear da une honetan (kuantitatiboa eta kualitatiboa, 0-3 urte artean familian izandako hizkuntza transmisioaren berri ez ezik familiako hizkuntz erabilera eta kontsumoen berri emango duen azterlana). Aipatu azterlana egiteko enkargua lehiaketa publiko bidez Siadecori emana du Udalak. Azterlan horrekin batera eta bere ondorioak kontuan hartuz, ekintza plan bat zehaztuko da. Izan ere, ikusten baita, aurreko urteotan esparru honetan garatu diren ekintzak mantendu eta indartu beharra ez ezik, berritu eta osatu beharra ere. Sentsibilizazio lan eraginkor eta sistematizatuak garatzeko premia ikusten da, betiere gurasoen erabaki esparru pribatua erabat errespetatuz, batetik, eta familien hizkuntza tipologia ezberdinak kontuan hartuz, bestetik. Eta betiere esparru honetan neurri batean edo bestean parte hartzen duten eragile guztiekin lankidetzan (gurasoak, eskolak, irakasleak, askotariko zerbitzu emaileak...). Helburua da guraso euskaldunek seme-alabei euskara transmititzea eta euskara beren arteko harreman hizkuntzatzat garatzea -guraso euskaldun berriak barne eta linguistikoki mistoak diren bikoteak barne- eta guraso erdaldunak euskararantz hurbiltzea.

3.2.2. Irakaskuntza eta eskola. Euskarak azken hogeita hamabost urteotan EAEn izan duen hazkundera batez ere eskolari zor zaio. Hori horrela izan da Andoainen ere. Andoaingo hezkuntza ez unibertsitarioan hezkuntza sistema arautu osoan hizkuntza ereduaren sistema ezarri zen ikasturtetik (1983/1984) egunotara arte etengabe hazi da D ereduak eta jaitsi dira A eta B ereduak, biak D ereduaren mesedetan. Gizartearen jaiotza tasa baxuaren eta zahartze prozesuaren ondorioz ikasle kopuru osoa erruz gutxitu bada ere, D ereduko ikasle kopurua portzentajeetan ez ezik zenbaki absolututan ere ikasturtez ikasturte hazi egin da. Eskola da, bada, Andoainen euskarak duen une sendoena, bai hiztun kopuruari dagokionez eta baita ere erabilera tasei dagokienez, nahiz eta azken hauek hiztun kopuruarena baina apalagoak izan. Euskararen garapenerako indargune horri gutxienez eutsi egin behar zaio eta, ahal den neurrian, hobetu egin behar da. Izan ere, bada zer hobeturik.

HHtik hasi eta DBHrainoko ikasle guztiak eta batxilergoko lautik hiru D ereduan ari badira ere, oso bestelakoa da lanbide heziketako egoera, non Goi Mailako Zikloetan ez den % 25era iristen D ereduak. Hori alde batetik, eta, bestetik, etxetik euskaldun diren haur eta gazteek euskaraz eskolatuta euskara erabilera-funtzio guztietarako eskuratzen dute, baina etxetik erdaldun direnek bigarren hizkuntza gisa eskuratzen dute euskara eskolan. Hizkuntza gaitasunaren eta tipologiaren aldetik askotarikotasun nabarmena antzematen da Andoaingo eskoletako ikasleen artean. Horrek guztiak erabileran eragiten du, erabileraren gertakarian, baita eskolako bertako erabileran ere, zuzenean eragiten baitute eskolako hizkuntza ereduak ez ezik familian egiten diren hizkuntza erabilerekin eta gazteek beren arteko harremanetan eta kale bizitzan egiten dituztenekin.

Andoaingo eskoletan urteak dira eskola giroan euskararen erabilera sustatzearen aldeko ekintzak burutzen dituztela eskolek beraiek eta eskolek eta Udalak lankidetzan iraunkorrean. Ekintza horiei jarraipena ematea beharrezkoa da, baina beharrezkoa da, baita ere, ekintza horiek berritzea eta eskola bakoitzeko ikasle eta gurasoen egoera demolinguistikoko berrietara egokitzea, hala nola ekintza programa bera handitzea eta areagotzea. Besteak beste, ikasle eta gurasoen euskararekiko motibazioak sendotzea eta irakasleen esku jartzea eskola giroan erabilera sustatzeko estrategiak, egin behar garrantzitsuak dira, betiere inplikaturako eragile guztien arteko lankidetzan (eskolak eta eskola komunitate osoa eta Udala).

Euskararen ezagutza ez ezik erabilera prestigiatzea, euskara hizkuntza akademiko hutsaren ezaugarria izatetik babestea, norberaren bizimodua -bizimodu profesionala barne- hobetzeko eta lan munduan aukera handiagoak izateko euskararen

balioa azpimarratzea, eta, ondorioz, lanbide heziketan euskarazko irakaskuntza sendotzea, ikasleei -euskal hitzun funtzional beteak izan daitezen- behar besteko gaitasun komunikatiboa eskuratzen laguntzeko programa osagarriak bultzatzea... horra hobekuntza bideak urratzeko hainbat irizpide.

3.2.3. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Euskararen hazkundearen parte esanguratsua zor zaio helduen euskalduntzeari, irakaskuntzaren ondotik. Andoaindarra izan zen euskaldunen alfabetatzearen premia larriaz eta ezinbestekotasunaz ohartarazi zuena eta, ondorioz, helduen alfabetatzeko Euskal Herri mailako lehen ekimena abian jartzea proposatu eta sustatu zuena, Andoaingo herriak hainbat modutara oroitzen eta goratzen duen Rikardo Arregi hain zuzen ere. Alfabetatze kanpaina hura gauzatzeko sortu ziren gau eskolak, gau eskolen ondoren etorri ziren alfabetatzea ez ezik euskalduntzea ere -edo batez ere- helburu zuten euskaltegiak eta HABE.

Euskal hitzunen kopurua erruz gehitu da Andoainen azken hiru hamarkadetan, gehitzen jarraitu behar du eta horretarako beharrezkoa da begirada eskolan ez ezik helduen populazioan ere jartzea, eta euskararik ez dakiten edo badakiten euskara landu nahi duten helduei euskara ikasteko edo hobetzeko tresna eskaintzea, euskaltegia. Euskararen etorkizuna ezin da gazteen eta eskolaren esku bakarrik utzi. Beharrezkoa da helduek ere pausoak ematea euskarara hurbiltzeko edo beren jardunean euskarari leku handiagoa egiteko, besteak beste gazteek ere euskara erabiltzeko aukera gehiago izan ditzaten eta euskara hizkuntza "normaltzat" (ez bakarrik hizkuntza "akademikotzat") har dezaten. Helduek eta gazteek, denek, osatzen dute gizartea, eta gizarte-bizitzako hizkuntza ohikoa izateko beharrezkoa da gazteen nahiz helduen artean gero eta baliatuagoa izatea euskara.

Andoainen bazen Gau eskola duela 50 urte, gero izan ziren bi euskaltegi, azken urteetan euskaltegi bakarra dago, AEKrena. Kontuan hartzekoa da euskalduntze ikasketak egiten ari diren andoaindarren % 39,8 Andoaindik kanpoko euskaltegiaren batean ari direla ikasketa prozesua burutzen. Andoaingo euskaltegia, HABEk homologatua izatean, HABEren kofinantzaketaz baliatzen da. Ikasleentzako dirulaguntzak ematen ditu Udalak, matrikula kostuaren % 85etik % 100era bitartekoak. Andoaingo euskaltegian ari direnei nahiz Andoaindik kanpo ari direnei zuzenduak dira dirulaguntzak. Nolanahi ere, Andoaingo euskaltegiko ikasle kopuruak ez du gorabehera handirik izan azken hamar urteetan. Komenigarria litzateke Andoaingo euskaltegiaren jarduna, hedadura eta onarpena areagotzea eta sendotzea, euskal hitzunen kopurua Andoainen erruz hazi bada ere, helburu garrantzitsua izaten baitarrai euskal hitzunen kopurua gehitzeak eta, beraz, euskaldun berrien pisua handitzeak -oraindik andoaindar helduen artean milaka baitira euskararik ez dakitenak, ulertzero ere iristen ez direnak-, edo guraso ez euskaldunak edo merkatari, ostalari eta hainbat zerbitzu emaile euskarara hurbiltzeak, edo gero eta gehiago diren atzerritik etorritako herritarrei euskararen aukera efektiboki eskaintzeak, hartzaile bakoitzarentzako berariazko programak eskainiz (AISA, ordutegi bereziak, eta abar).

Berariazko arreta eskaini behar zaie etorri berriei, euskararekiko interesa piztuz eta euskara ikasteko aukera eskainiz, kostua eragozpen ez izatea bermatuz. Hortaz, beharrezkoa dirudi orain arteko dirulaguntza politikarekin jarraitzea, baina beharrezko diren egokitzapenak egin beharko dira politika horretan, Eusko Jaurlaritzak iragarri duenez B1 ikasmaila arteko ikasketa prozesua doakoa izatea bermatuko baitu berak. Udalaren dirulaguntza politikaren helburua, kasu horretan, izango da, premia orokorrak alboratu gabe, ezaugarri propioak dituzten herritarrei (gurasoak, merkatariak, etorri berriak, aisialdiko monitoreak, kirol entrenatzaileak, askotariko irakasleak, eta abar) beren premien arabera euskararen irakaskuntza/ikaskuntza eskura dezaten

eragozpen ekonomikoak ezabatzea. Eta, nolanahi ere, beharrezkoa da dirulaguntzen politikatik haratago pausoak ematea, hain zuzen ere premia zaharberriuei eskaintza eta aukera berriak eskainiz. Horretarako eragile nagusia, jakina, euskaltegia da, eta Udalari dagokio euskaltegiaren lana aipatutako helburuen bila elkarlanean sustatzea.

3.2.4. Esparru sozio-ekonomikoa, oro har. Euskararen biziberritze prozesuaren arrakastarako nahitaezkoa da euskara herritarrentzako eguneroko bizimoduan eta ibilbide/garapen profesionalean baliozkoa eta *beharrezko* lanabesa izatea. Euskararen bizi-indarrak beharrezkoa du, bada, euskara lan mundurako apaingarri huts ez izatea, are gutxiago harresi, makulu efikaza baizik. Horrek eskatzen dituen gauza ugarien artean, bada bat azpimarratzekoa: lanbide heziketa. Izan ere, derrigorrezko hezkuntzatik lan mundurako jauzia egiterakoan lanbide heziketa zubi den neurrian da behar-beharrezkoa lanbide heziketan ere, euskarazko zikloak, goi mailan bezala erdikoan, orokortzea eta hedatzea, derrigorrezko hezkuntzan gertatzen den moduan. Izan ere, euskarazko irakaskuntzari dagokionez, arrakala handia baitago derrigorrezko hezkuntzaren eta lanbide heziketaren artean. Horretan bada zer hobeturik Andoainen. Lanbide heziketan bezala komenigarria da, orobat, enpresetako praktikaldietan ere euskara lan eta harreman hizkuntza gisa sendotzea.

Sustapen ekonomikoaren arloan hainbat lan ildo bultzatu dira urteotan Andoainen, baita Buruntzaldeko beste udalekin batera ere. Lan ildo horietan euskarazko jarduna kontuan hartu izan da, baina beharrezkoa da euskararen erabilera bermatzeko helburuarekin esparru horretan orain arte egindakoa mantendu ez ezik sendotzea, areagotzea eta sistematizatzea.

Andoaingo merkataritza eta ostalaritzan euskara erabiltzeko ekimen ugari eta askotarikoak garatu dira urteotan. Nabarmentzekoak dira paisaia linguistiko komertziala eta merkataritzako dokumentazio estandarra euskalduntzeko egin diren ekintzak eta eman diren dirulaguntzak. Lan ildo horiek areagotu eta berrindartzearen premia agerikoa da. Arreta eskatzen duen eginkizuna da, halaber, merkataritza eta ostalaritzako zuzeneko zerbitzu emaileen euskara gaitasuna hobetzeko lan ildo bat diseinatu eta garatzea. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bete daitezten merkataritza establezimenduek dituzten betebeharren betetze-mailaren behaketa egitea lan ildo bat izan beharko da, eta Udalak sustatu nahi du esparru honetako eragile sozial eta ekonomiko ezberdin eta ugarien arteko elkarlana (merkatariak, ostalariak, enpresak, *Salkin*, eta abar) hain zuzen ere euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan indartzeko eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak efektiboki betetzeko.

3.2.5. Kirola eta aisia, oro har. Gazteak dira euskaldunen portzentajerik altuenak osatzen dituzten herritarrak, alde handiarekin adin-talde nagusiekiko. Gazteen bizimodua betetzen duten orduak ikasketa arautuak eta aisialdiak osatzen dituzte nagusiki, eta aisialdiaren barruan kirola da gazte gehienek gogotsu praktikatzen duten jarduera. Andoain ez da horretan salbuespena. Gazteen sozializazioan familiak, eskolak eta eskolaz kanpoko aktibitateek eta lagunarteak eragiten dute indar handiz. Horregatik da ezinbestekoa eta lehenetsun handikoa kirolean eta aisialdian oro har euskara komunikazio hizkuntza naturala izatea gero eta gehiagorentzat, gero eta neurri handiagoan.

Andoainen esparru hauetan hainbat ekimen eta programa garatu dira urteotan, baita hainbat azpiegitura eta baliabide iraunkortu ere, non euskara komunikazio eta harreman hizkuntza izateko pauso ugari eman diren, nahiz eta alde handiak dauden gune batzuetan eta bestetan egindakoaren artean: esate baterako, Gazte Lokala, ludoteka, kirol elkarteak, udal kiroldegia, eskola kirola, udalekuak, eskola arautuaz kanpoko askotariko ikastegiak, eta abar. Hainbat kirol elkarterekin hitzarmenen bidea

ere jorratu da; zenbait kirol gune eta kirol eskola eta taldetan euskara ohiko harreman hizkuntza da, ez bakarra. Eskolen eta Udalaren arteko lankidetzak iraunkorraren markoan hainbat eta hainbat ekintza garatu dira. Udal kiroldegiko ikastaroetan hizkuntza irizpideak aplikatu dira.

Finean, esan nahi da, askotariko ekimenak eta arrakasta ezberdinekoak garatu direla urteotan. Egindakoa berrindartzea eta aisialdiaz gozaten dutenen apetak asebetetzen dituzten ekimenak euskaraz gauzatzea beharrezkoa da. Beharrezkoa da kiroltako entrenatzaile eta monitoreen jardunerako euskara gaitasun behar bestekoa ziurtatzeko neurriak hartzea eta aipatutakoei beren jardunean euskararen erabilera bermatzeko estrategia egokien prestakuntza eskaintzea. Hain zabalak eta askotarikoak den esparru honetan ere garrantzi handikoa da inplikaturako eragile ugarien eta Udalaren arteko lankidetzak eraginkorra egituratzea.

3.2.6. Kulturgintza: sorkuntza eta hedakuntza. Giltzarri da kulturgintza ezein hizkuntza gutxituaren biziberritze prozesuetan. Askotariko herritarren komunikazioa du eginkizun hizkuntzak, baita ere euskarak; komunikazioa zentzurik zabalenean hartuta, hots, sorkuntza, sortutakoaren kontsumoa... interakzio ekintza baita, finean, hizkuntza, baita ere euskara. Kulturei eta mundu zabalari oro har irekita egoteko leihoa da hizkuntza, eta, aldi berean, kultura propioa sortu eta hedatzeko eginkizun espezifikoak du. Besteak beste, kulturaren eta kulturarako tresna da hizkuntza, baina hain da tresna garrantzitsua, bera gabe ezinezko baita kultura bera. Euskararen transmisioa eta erabilera balioztatzeak eta indartzeko giltzarri da euskarazko kulturgintza, sorkuntza nahiz hedakuntza.

Andoainen azken urteotan pisu handia izan du Euskal kulturgintzak. Bastero kulturgunearen jardun etengabe, arrakastatsu eta askotarikoaren ondoan, nabarmentzekoak dira Rikardo Arregi kazetaritza saria, MLKBren hainbat ekintza, erreportaje idatzien eta bideo sorkuntzako lehiaketak, ahozkotasanaren lanketarako eskoletako bertsogintza saioak eta herriko bertso eskola, euskal literatur lanen hedapena idazleen eskutik, beste ekimen ugarien artean. Orain arte egindakoari eustea eta hura indartzea ez ezik, beharrezkoa dirudi herritarren apeten askotarikotasuna kontuan izanda euskarazko kultur eskaintza zabalagoa bideratzea eta euskarazko sorkuntza bultzatzea, komenigarria irizten den bezala Andoaingo bertako kultur ondarearen transmisioa egitea (ahozko ondarea, toponimia, eta abar) eta Andoaingo hainbat sortzaile eta ekintzailek historiaren une ezberdinetan sorturikoa herritarrei eskuratzea, bereziki belaunaldi gazteei.

3.2.7. Komunikazioa. “Komunikazioaren gizartean bizi gara eta biziko gara” esaldiak, hainbeste errepikatzearen ondorioz topiko kutsua bereganatu badu ere, gizartearen ezaugarri nabarmenatariko bat adierazten du. Hedabideak eta IKTak ez dira huts-hutsik euskararen berreskurapenerako garrantzitsuak, hori baino gehiago dira: hedabideetan eta IKTetan bizi da dagoeneko gaurko gizartean gehiengoa eta are gehiago biziko da etorkizunean. Herritarren bizilekuak dira hedabideak eta IKTak; horrexegatik horietan ahalik eta sendoen behar du euskarak, beraietan presentzia baliotsua edukiz eta, aldi berean, euskararen hedakuntza sozialerako tresna gisa haietaz baliatuz.

Euskarazko edukiak sortzeko fabrikatzaileak eta zabaltzeko leihotza hartu nahi dira ESEP honetan hedabideak eta IKTak. Urteotan ekimen ugari izan da arlo honetan Andoainen, eta Udalak ahalegin handia egin du horien guztiorien sustapenean. Aipatzekoak dira, eragin maila ezberdina badute ere, Aiarri, Bost txiki, Bost press eta beronen jarraipena izan den Erreportari Gaztea, bideogintza, web guneak (andoain.eus; andoaindarrareuskaraz.eus; buruntzaldea.eus) eta horien garapena askotariko sare

sozialetan, beste zenbaiten artean. Bada zer hobeturik zabalkunde handiko hainbat hedabidetan, zeintzutan apala baita euskararen presentzia. Orain artekoari eusteaz eta hura indartzeaz gain, beharrezkoa da, beraz, Andoainen hedapen handia duten hedabideetan euskarari toki handiagoa egiteko pausoak ematea eta digitalizazioaren garapena dela-eta etengabe aldatzen ari diren komunikazio bide eta tresna teknologikoetan Andoaingo euskarazko edukien presentzia bermatzea.

3.2.8. Etorri berriak eta kulturartekotasuna. Andoaingo tipologia demolingüistikoa aldatuz dator urteotan eta uste izatekoa da aldatuz jarraituko duela. Gaur egun, 2019an, udal erroldako datuen arabera, 922 bizilagun dira atzerrian jaiotakoak, herritarren % 6,2 mende hasieran 131 baizik ez zirenean (herritarren % 0,92). Urtez urte pixkanaka baina etengabe hazten doan kopurua da. Biztanleria horren ezaugarrietako bat da gaztetasuna eta pisu esanguratsua du 20-44 urte bitarteko herritarren artean, biztanleria osoaren % 12 gutxi gorabehera. Finean, Andoaingo biztanleriaren aniztasuna areagotu egin da jatorriari eta ezaugarri linguistikoek dagokienez ere. Hori da, horrelakoa da, Andoaingo gizartea gaur. Aspektu hori oso kontuan izan behar du Udalaren hizkuntza politikak eta, beraz, ESEPeK. Euskaldun berri potentzialen kopurua handitu egin dela esan nahi baitu aipatu dugun bilakaerak.

Etorri berrien artean asko dira euskararik badenik ere ez dakitenak. Urratu behar den bidea da etorri berriek euskara eurentzako aukera sozial egoki eta lagungarri moduan jasotzea. Euskarara hurbiltzeko eta euskaraz jabetzeko aukera egokiak eskaini behar zaizkie. Azken urteotan etorri berriei zuzendutako hainbat ekimen bultzatu dira, gazteenen kasuan hezkuntza sistemaz kanpora ere euskara modu ludikoan eskura dezaten, (adibidez, “Ongi etorri, gazte!” programa, besteak beste) eta edozein adinetakoek zuzendutakoak (adibidez, “Banaiz Bagara” elkarteak dinamizatutako ekintzak). Orain arteko ekintzak indartu beharko dira eta berriak sortu eta abiarazi. Beharrezkoa da esparru honetako eragile sozialen eta Udalean inplikaturako Sailen arteko lankidetzaren artikulatzea. Garrantzitsua da etorri berriei *euskaratik* egitea harrera, euren kulturak eta hizkuntzak onartuz, balioztatuz eta herrian ezagutzera emateko aukerak eskainiz, euskara eta beren jatorrizko hizkuntzen bateragarritasuna agerian jarriz.

3.2.9. Administrazioa. Ikus EEPLA 2018-2022, zeina ESEPen parte osagarria baita.

3.2.10. Sentiberatzea, motibazioa(k), aktibazioa. Transmisioan eta erabileran eragiteko beharrezkoa da prozesu horietan eragiten duten faktore ugariak kontuan hartzea (erabilera aukerak, hizkuntza eskubideak, euskara gaitasuna, eta abar). Eta beharrezkoa da kontuan hartzea, halaber, faktore subjektiboak ere, indibidualak nahiz kolektiboak, betiere faktore horien askotarikotasuna ahanzi gabe. Euskal herritarrek euskararen hautua gero eta gehiagotan, gero eta gauza gehiagotarako egin dezaten beharrezkoa da herritarrentzat, haurrentzat bezala gazte eta helduentzat, euskararen erabilera gero eta aukera naturalagoa izatea. Horrek eskatzen du euskararekiko sentsibilizazioa areagotzea eta euskal hiztunen aktibazioa sustatzea. Helburu hori duten ekimenek pisua izan behar dute Udalaren hizkuntza politikan eta, beraz, ESEPen garapenean.

3.2.11. Kanpo proiektzioa. Hizkuntza gutxituak biziberritzeko prozesuak tokian tokiko prozesuak dira, berezitasun eta ezaugarri propioak dituzte eta, horrexegatik, behar dute tokian tokiko hizkuntza politika eta jardunbidea. Baina hizkuntza aniztasunaren galeraren arazoa ez da tokian tokiko arazo lokala, unibertsala baizik. Beharrezkoa da munduan zeharreko hainbat tokitako hizkuntza biziberritze prozesurekin kontrastean jartzea gure udal hizkuntza politikako jarduna eta esperientziak partekatzea.

Ildo horretatik begiratuta, bada, komenigarria ez ezik egin beharrekoa da udal arloan euskararen erabilera normalizatzeko egin den bidearen eta egiten ari garenaren berri hala nahi duten munduko hainbat udal hizkuntza politiken arduradun eta eragileei ematea. Izan ere, hala eskatzen baitu gizadiaren hizkuntza aniztasunarekiko konpromisoa betetzeak. Garabideren ekimenez eta haren eskutik Andoaingo Udalak parte hartu du hizkuntza lankidetzan ekintzetan, zehazki Ekuadorren. Bidezkoa da etorkizunean ere nazioarteko hizkuntza lankidetzan prozesuetan parte hartzea.

4. PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2025): JARDUN ESPARRUAK, HELBURUAK ETA NEURRIAK

Sarreran esan bezala, Andoaingo ESEP (2020 – 2025) honek oinarritzat duena da Euskararen Aholku Batzordeak bi fasetan (2012an eta 2014an) egin eta onartu zuen eta ondoren Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartu zuten Euskara Sustatzeko Ekintza Plana deituriko Plan Estrategikoa. EAerako hizkuntza plangintzako estrategia bateratuan kokatzen da, beraz, Andoaingo ESEP hau. Honen aurreko Andoaingo EBPNk, 2010ean onartu eta geroztik indarrean egon den Plan Estrategikoak alegia, EAEko EBPN oinarritzat zuen modu berean egiten dugu oraingo honetan ere. Horrexegatik ESEPen egitura osatzen dute honako elementuok: helburu nagusia, hiru helburu estrategiko eta hauetako bakoitzaren garapena esparruz esparru banatuta, esparru bakoitzeko helburuak eta lan ildoak eta ekintzak finkatuz. Zehar-lerro gisa bi elementu jaso ditugu. Eta azkenik, jarraipena eta ebaluazioa.

4.1. HELBURU NAGUSIA

Urteak daramatzate Andoaingo Udalak eta Andoaingo gizarteko hainbat eragile euskaltzalek udalean eta udalerrian euskara biziberritzeko lanean murgilduta. Helburu nagusia lehen eta orain bera da: euskararen erabilera areagotzea. Horren lekuko da, duela 32 urte onartu zen 1/88 Udal Ordenantzaren izena izatea “Andoaingo Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen” eta, orobat, 30 urte geroago, 2018ko abenduan, Udalak 2028-2022 urtealdirako onartu duen Planaren izena hain zuzen izatea “Andoaingo Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana”. Erabilera baita euskararen osasun neurriaren berri ematen duena. Iraupena eta garapen iraunkorra da euskararentzako bilatzen dugun etorkizuna; iraupenak eta garapen iraunkorrak argi finkatzen dute helburu nagusia: transmisioa eta erabilera.

Hortaz, atzo bezala gaur ere -eta, seguru, etorkizunean ere- jomuga nagusia izanik euskararen erabilera eta transmisioa, 2020-2025 urtealdirako ESEP honen **helburu nagusia** (beste hitzetan *bisioa* esango genukeena) honakoa da:

Andoaingo udalerrian, udal jardunean bezala udalerriko gizarte bizitzan, hizkuntzak baliatzen ditugun askotariko funtzio eta guneetan, euskara ohikotasunez erabiltzen den komunikazio hizkuntza gisa indartzea eta handitzea, zehazki arloetan: aisian, hurbileko eta lagunarteko harremanetan, kulturgintzan, merkataritzan, ostalaritzan, zerbitzugintzan, eskoletako ikasgelaz kanpoko harremanetan eta eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan, betiere arreta berezia jarriz etxetik euskaldun direnen hizkuntza erabileretan, euskaldun berrien etxeko transmisioan eta haur eta gazteen hizkuntza erabilera eta ohituretan, eurek dituzten erabilera aukerei eta gaitasunei erreparatuz, hain zuen ere euren euskararen erabilera gero eta naturalagoa izan dadin.

4.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Honakoak dira hiru helburu **estrategikoak**: **euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura**. Zehar-lerro biak, berriz, honakoak: **sentiberatzea / motibazioa / aktibazioa eta kanpoko proiektzioa**.

Euskararen jabekuntzari dagokionez, hiru arlo bereiztea da ohikoa, honakoak: familia, irakaskuntza eta helduen euskalduntze-alfabetatzea. Kasu honetan ere hiru horiek jaso ditugu, baina beste bat gehitu diogu ohiko hirukoteari, etorri berrien arloa hain zuzen ere. Badakigu, noski, aipatutako ohiko hirukotearen baitan kokatu litekeela, eta kokatzen dela, etorri berrien arloa ere, baina Andoaingo biztanlerian duen pisuagatik eta dituen ezaugarri espezifikoengatik, bereziki tratatzearen aukera egiten da ESEP honetan.

Transmisioa da (euskaraz jabetzea, alegia) guztiaren oinarrian dagoen zutabe nahitaezkoa, euskara belaunez belaun transmititzea ezinbestekoa baita bizirauteko eta garatzeko, hizkuntza bizia eta erabilia izateko. Transmisioa bermatu ezean, alferrik dira gainerakoak.

Transmisioa gauzatzen den arloetan familia bidezkoa da lehena guraso euskaldunen edo ia euskaldunen kasuan, hizkuntza *afektiboa* deitu dezakeguna, munduarekin harremanetan jartzen hasten garenean, bizitzako lehen urteetan esan nahi da, jasotzen eta erabiltzen dugun hizkuntza (iraganean ama hizkuntza deitua). **Familia bidezko transmisioan** galerak gertatzen badira, desagertze bidean jartzen da hizkuntza, ezinbestez. Izan ere, familiako transmisioa ez bermatzeak eta belaunez belaun galera jarraituak izateak adierazten baitu, besteak beste, hizkuntzari gizarteak oro har ez diola bizitza garaikiderako baliorik aitortzen. Familia bidezko transmisioaren zuloa, halakorik dagoenean, ezin da beste transmisio arloetatik bete eta konpondu, onenean ere galera prozesua leundu eta geldotu egin daiteke, baina ez konpondu. Bestalde, familia bidezko transmisioak eragin zuzena du etorkizuneko hiztunaren gaitasunean, erabileran eta jarreretan. Andoainen ere galerak izan dira duela urte gutxi arte, baina gaur egun bikote euskaldunek ez dakarte galerarik; halere, bada zer hobeturik. Euskaldunen kopurua erruz hazi den neurri berean hazi da, halaber, euskaldunen euskara gaitasunaren askotarikotasuna, eta horrek badu eraginik familiako transmisioan. Lehen hizkuntzaren kopuruak geldiro aldatzen dira, baina Andoainen, gazteen artean euskaldun berrien hazkundera ikaragarria denez, neurri bertsuan hazi da euskara (ere) lehen hizkuntza neurri handiagoan izateko potentzialtasuna. Horregatik ere areagotu egin da helburu honen estrategikotasuna.

Euskararen transmisioan funtzio ezinbestekoa eta ordezkazina betetzen du **irakaskuntzak**. Etxetik euskaldun direnak funtzionalki hiztun beteak izan daitezten eta euskaraz erregistro kultuak eskuratu eta garatu ditzaten giltzarri da eskolak egin dezakeena eta egiten duena, Andoainen ere. Etxetik euskaldun ez direnek bigarren hizkuntza gisa eskuratzen dute euskara eskolaren eskutik, eta erabilera akademiko eta kultueterako lantzen dute. Batez ere eskolaren ekarpenari zor zaio Andoainen euskarak azken hamarkadetan izan duen euskaldunen hazkundera, eta eskolako esparrua da euskara egunerokoan, denborarik luzeenean, gehien erabiltzen den gunea, hainbat gazte euskaldun berrien erabilera gunea (ia) bakarra. Komeni da eskolaren testuinguruan, bertako ikasketa prozesuetan nahiz erabilera ludikoetan, euskararen jabekuntzan pisu handiagoa ematea ikuspegi komunikatiboari eta gazteen euskarazko komunikagaitasuna eta adierazkortasuna lantzeari, komenigarria baita “erabiliz ikasi” paradigma nagusitu dadin pausoak areagotzea. Hori bada ESEP honen helburu estrategikoa.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea da hizkuntza transmisioaren ohiko hirukotearen beste zutabea, garrantzi betea duena. Euskararen hazkundearen iturri izan da heldutan euskara ikasi edo landu dutenen ekarria, irakaskuntzaren ondotik. Andoain da Euskal Herriko lehen gau eskolak sortu ziren gunetariko bat, Rikardo Arregi andoaindarrak sustatua baita lehenengo euskarazko alfabetatze kanpaina. Andoainen bada, halere, zer hobeturik arlo honetan, handia baita euskararik ez dakiten helduen eta Andoaingo euskaltegian ez bada Andoaindik kanpokoren batean euskalduntzen ari direnen artean dagoen aldea.

Azkenik, Andoainen, biztanleriaren azken hogeituro urteetako bilakaeraren argitan, **etorri berriei euskara eskura jartzea** eta haiek euskararantz erakartzea giltzarri da euskararen transmisioaren arrakastarako (edo, hori erdietsi ezean, porroterako). Izan ere, etorri berriak ia denak baitira bizimodu eramangarri baten bila datozenak eta euren artean erdia baino gehiago 45 urtez beheitikoak dira, eta horietatik asko dira jatorriz latinamerikarrak (gaztelaniadunak, alegia) eta euskararik badenik ere ez zekitenak. Euskararen jabeakuntzako helburu estrategikoak estrategia berariazkoak eskatzen ditu andoaindar berri hauen ezaugarriak kontuan hartu eta beraiei euskararen aukera modu erakargarrian eskaintzeko. Helburu honek eskatzen duena da etorri berriek euskararen beharra gizarte integrazio hobearrekin lotu dezaten eta bizimodu profesional oparago baterako aukera gisa har dezaten ekintza lagungarriak aurrera eramatea, betiere beren jatorrizko hizkuntza eta kulturari, errespetu osoa aitortzeaz gain, ikusgarritasunerako aukera emanez.

Erabilera da, bistan denez, helburu estrategiko klabea, erabilera baita euskararen osasunaren neurgailu nagusia. Erabilerak aurrera egin du Andoainen, baina -dixosozko baina- gehiago aurreratu nahiko genuke erabileran, nahiz eta jakin -eta hau ere argi esan behar da, alferrikako ezkortasun antzuen kontra- testuinguru elebidun edo eleaniztunetan ezinezkoa dela hizkuntza gutxituaren ezagutzak eta erabilerak neurri berean eboluzionatzea. Baina euskaldunen hazkundeak euskal hiztun eta erabiltzaile aktiboen potentzialitatea areagotu duenez, euskara, gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabilia den bidean ikusi nahi dugu. Hori da helburua. Andoainen ere gorantza egin du, nabarmen, euskararen erabilerak azken hamarkadetan, baina erabilera hori areagotzeko aukerak ditugu eta ez ditugu alferrik galdu nahi. Ikerketen arabera, badakigu zeintzuk diren erabilera areagotzeko astindu behar ditugun faktoreak: euskaldunen kopurua (dentsitatea), euskal hiztunen gaztelaniarekiko euskara gaitasuna edo erraztasuna, inguruko harreman-sarearen hizkuntza (familia, lagunarte, lantoki eta kaleko bizitzan nagusi den harreman hizkuntza) eta euskararekiko jarrera edo identifikazio maila. Faktore horietan Andoain mailan eragitea da ESEP honen beste helburu estrategiko bat, kontua baita euskarak, balio sinboliko-identitarioa ez ezik, balio praktiko eta funtzionala izatea egunerokotasunean gero eta naturaltasun handiagoz erabilia izan dadin.

Azkenik, euskararen **elikadurarena** helburu estrategikoa da, euskara, adin nagusiko hizkuntza normalizatua izateko bidean ezinbestekoa baita, euskarazko edukiak sortu, zabaldu eta kontsumitzea. Euskarazko bizipenak transmititzeak eta euskarazko kultura eta sorkuntza zabaltzeak behar du ahalbidetu euskararen erakargarritasuna, berez, erakargarriak, euskara bera ez baizik eta sorkuntza eta aktibitateak baitira eta, bide batez, euskara, sorkuntza eta aktibitate horietako hizkuntza den neurrian. Euskararen biziberritzean aurrera jarraitzeko ezinbestekoa da askotariko arloetan euskarazko eduki erakargarriak sortu, zabaldu, sustatu eta ezagutzera ematea (hedabideak, IKTak, kulturgintza oro har, eta abar). Beharrezkoa da kalitatea zaintzea baina itsukerian erori gabe, kantitatea hazi ahala etorriko baita beharrezkoa den kalitatea ere areagotzea. Eta kantitatez hazkunde potentziala ikaragarria da Andoainen, euskaldun berriei esker. Euskaldun guztien eta euskaldun berrien zerbitzuan egon behar du euskararen elikaduraren helburu estrategikoak, betiere haien apetak eta ezaugarri

linguistikoak oso kontuan hartuz, Andoaingo euskaldun guztiak baitira, euskaldun zaharrak zein euskaldun berriak, maila berean Andoaingo euskaldun. Euskararen historian euskaldun zaharrei zor zaie euskararen iraupena eta, orain, euskaldun berriei zor diegu euskararen hazkundera eta hiritartzea. Guztiak dira, bada, euskarak bizirauteko eta garatzeko behar(ko) dituen euskaldunak.

Helburu estrategiko hauen garapenerako badira **bi** elementu **zehar-lerro** gisa funtzionatuko dutenak: **sentiberatzea (motibazioa, aktibazioa) eta kanpo proiektzioa**. Sentiberatzeaz ari garenean motibazioez ari gara eta euskaldunei euskal hiztun aktibo izatera laguntzeaz ari gara. Euskaraz jarduteko motibazioak askotarikoak dira eta baztergarri ez diren guztiak dira baliozkoak eta bultzatu beharrekoak, askotarikoak baitira, zorionez, euskal hiztunak, aktiboak nahiz pasiboak. Sentiberatu, motibatu, aktibatu... ekintza horietan aurrera egitea da helburua, horrek guztiorrek hauspotu ditzakeelako transmisioa eta erabilera. Beharrezkoa da helburu horren bila arrakasta izateko norberaren eta inguruko harreman-sarearen hizkuntza jokabidearen eraginaz herritarrak sentiberatzea. Finean, herritarrak eta askotariko erakundeak, herri erakundeak zein gizarte erakunde sozial, kultural, ekonomiko eta mediatikoak jabetzea, euskararen ezagutzak dagoeneko Andoaingo gizartean duen bezainbesteko prestigioa eman behar diogula, denon artean, euskararen erabilerari eta euskara Andoaingo gizarte bizitzaren erdigunean kokatzeari, gaur egun den baino ikusgarriago egiteko.

Euskararen hautua egiteko akuilu izango diren motibazioak, askotarikoak, landu behar ditugu Andoainen. Izan ere, euskararen biziberritzeak askotariko hiztun aktiboak behar baititu eta, orobat, euskaldun ez direnen solidaritate aktiboa behar baita euskararen erabileran aurrera egiteko. Euskara biziberritzearen helburua andoaindar ahalik eta gehien proiektua izatea da; horrek eskatzen du, inor atzean geratuko ez bada eta proiektuari inork bizkarra erakutsiko ez badio, andoaindar gehien erritmoak eta motibazioak kontuan izan beharko direla. Bi eremutan landu behar dira motibazioak: euskaldunen artean, batetik, hauek euskal hiztun aktiboak izan daitezen, eta, bestetik, euskararik deus jakin ez eta euskararik gabeko Andoain normaltasunez bizi dutenen artean, hauek euskarazko Andoaini bizkar emanda bizi beharrean euskarazko Andoainen berri izan dezaten eta euskararantz hurbil daitezen.

Kanpo proiektzioa. Kontua da euskara biziberritzeko Andoainen azken lau hamarkadetan burutu den prozesua kanpoan ere ezagutzera ematea eta beste herrialdeetako hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuekin harremanetan jardunez batzuen eta besteen esperientziak trukatzea, denek denengandik ikasteko.

4.3. JARDUN ESPARRUAK

Aipatutako helburu estrategikoetarantz eramango gaituen bidea egiteko esparruz esparru behar dira finkatu helburuak, lan-ildoak eta ekintzak. Ondorengoak dira Andoaingo ESEP (2020 - 2025) honen garapenerako esparruak, ikusi berri ditugun hiru helburu estrategikoen eta zehar-lerroen arabera antolatuta:

Euskararen jabekuntza

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Helduen euskalduntze-alfabetatzea
4. Etorri berriak eta kulturartekotasuna

Euskararen erabilera

5. Administrazioa
6. Arlo sozio-ekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen elikadura

8. Kulturgintza
9. Euskararen corpusa
10. Komunikazioa: hedabideak eta IKTak

Zehar-lerroak

11. Sentiberatzea, motibazioa, aktibazioa
12. Kanpo proiektzioa

4. 4. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Autonomia Estatutuan xedatuaren arabera, Euskadiko herritar guztiek dute euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta herri-erakunde komunei dagokie horien erabilera bermatzea eta ezagutza aseguratzea. Ildo beretik, Euskararen Legeak hainbat hizkuntza eskubide aitortzen dizkie herritarrei administrazio, hezkuntza, hedabide eta gizarte-bizitzako eremuetan oro har balia ditzaten. Eskubide horiek egiazki baliatzeko herri-aginteei, udalak barne, betebeharrak ezartzen dizkie. Hori da Andoaingo Udalak berak ere, 1/88 Udal Ordenantzaren eskutik espresuki bere egindako eredia, indarrean jarraitzen duena: herritarrak dira hizkuntza eskubideen jabe eta, ondorioz, Udalari eta hainbat organismo publiko eta pribaturi betebeharrak dagozkie hain zuzen ere herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak egiazki errespetatuak izan daitezen, progresiboki. 2/2016 toki entitateen legeak eta haren garapenerako 179/2019 dekretuak printzipio horiek udaletan eta udalerrietan garatzeko hainbat zehaztapen finkatu dituzte (ikus ESEP honetako 2. atala).

Herritarrei arlo ezberdinetan askotariko eskubideak aitortzea eta aitortutakoak praktikan betetzea gizarte aurreratuen adierazle nagusietarikoa da. Ildo horretatik, hizkuntza eskubideek ere garrantzi bete dute, hain zuzen ere herritarren arteko aukera berdintasuna dutelako helburu. Bistan da Andoainen ere aurrerapauso handiak eman direla azken hamarkadetan bide honetan. Halere, bada zer hobeturik, euskaraz bizitzeko hautua egiten duenak hainbat arlo eta testuingurutan oraindik zailtasunak baititu bere hizkuntza aukera eragozpenik gabe baliatzeko. ESEP honen eskutik, Andoaingo Udalak ahalegin berezia egingo du Andoaingo udalerrian hizkuntza eskubideak efektiboki errespetatu daitezen, lehenik eta behin -eta batez ere- Udalaren beraren jardunean eta Udalaren herritarrekiko harremanetan, baina baita ere udalerriko ezein eremu publiko-pribatutan eremu bakoitzeko eragileekin elkarlanean, jakinda helburu hori erabat betetzera iristeko prozesua ezinbestez progresiboa izan behar dela zenbait arlotan.

Udalaren egitekoa da herritarrak babestea beren hizkuntza hautua egin eta praktikara eramaterakoan, edozein delarik ere beren hautua bi hizkuntza ofizialen artean. Elkarbizitza harmoniatsuak eta herritarren aukera-berdintasuna errespetatzeak eskatzen du herritarren hizkuntza-hautua bermatu egin behar dela, euskara zein gaztelania izan hautatutako hizkuntza. Herritarren hizkuntza eskubideak babestea, beraz, udal hizkuntza politikaren printzipio gidaria da, jakinda, Andoaingo hizkuntza errealitatean euskarak desoreka nabarmena nozitzen duenez, printzipio hori bermatzeak eskatzen duela hain zuzen ere euskararen erabilera bermatzeko neurriak hartzea, hots, hizkuntza berdintasun efektibora iristeko bidean euskararen erabilera sustatzearen aldeko hizkuntza politika aktiboa egitea, ESEP honen eskutik eta indarrean dagoen legeriaren barruan.

4.5. HELBURUAK ETA LAN ILDOAK ESPARRUZ ESPARRU

<i>1 Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza</i>	
1. Jardun esparrua: Familia bidezko euskararen transmisioa	
HELBURUAK	EKINTZAK
<p>1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea gurasoekin, hauei ezagutzera emateko familiako transmisioak eta familiako hizkuntza-erabilerak duten garrantzia euskara modu naturalean eskuratzeko.</p>	<p>1.1.1 Gurasogai eta guraso berrientzako sentiberatze programa: hitzaldiak, haur jaio berriei ongi etorria egiteko berariaz prestatutako materiala, ipuin kontaketa eta jolas ikastaro/tailerrak...</p> <p>1.1.2. Guraso, aitona-amona eta haur zaintzaile erdaldunentzako diseinaturiko euskarako klase berezituak eskaintzea.</p> <p>1.1.3. Guraso euskaldun berriei arreta berezia eskaintzea seme-alabei euskara etxean eskura diezaieten.</p> <p>1.1.4. Azaltzea eleaniztasunaren onurak eta, zehazki, hemengo testuinguru geografikoan, euskara ezagutzeak dituenak, norbanakoaren garapen kognitiboaren ikuspegitik bezala etorkizun profesionalarenetik.</p> <p>1.1.5. Etxean ohikotasunez erabiltzen den hizkuntza izateak eta gurasoen familia barruko hizkuntza erabilerek haurren hizkuntza ohituren sorreran duten eraginaren gaineko sentiberatzea zabaltzeko ekimenak aurrera eramatea komunikazioaren esparruan (hedabideetan, beste herri erakunde batzuekin elkarlanean...), bereziki guraso euskaldunei eta mistoei begira.</p>
<p>1.2. Familia giroan euskararen erabilera sustatzea.</p>	<p>1.2.1. Familiako bizitzan euskara harreman hizkuntza izaten laguntzeko estrategiak eta bitartekoak gurasoei azaltzeko ekintzak antolatzea.</p> <p>1.2.2. Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzea.</p> <p>1.2.3. Haurrentzako eta gazteentzako dagoen euskarazko produktuen</p>

	<p>eskaintzaren berri ematea (liburuak, jolasak, bideoak...).</p> <p>1.2.4. Haurrek beren gurasoen aurrean euskarazko jarduna azal dezaten guneak sortzea eskola giroan eta udalerrian eskolatik kanpora ere: bertso-gintza, ipuin kontaketa, antzezlanak, kantuak...</p> <p>1.2.5. "Larunbatean ere euskaraz" eta gisa horretako errefortzu programak garatzea.</p> <p>1.2.6. Gurasoek eta seme-alabek elkarrekin goza ditzaten ekitaldiak antolatzea.</p> <p>1.2.7. Eskolan nahiz eskolatik kanpo gurasoek eta haurrek euskara erabiltzeko guneak sortu eta dinamizatzea.</p> <p>1.2.8. Gurasoen artean Mintzalaguna sustatzea.</p>
<p>1.3. Familiako transmisioaren bilakaeraren berri jasotzea.</p>	<p>1.3.1. Beharrezko diren ikerlanak egitea.</p>
<p>1.4. Haur eskola, haur hezkuntza eta haurren zaintzaileekin estrategia bateratua aurrera eramatea.</p>	<p>1.4.1. Eragile ezberdinen arteko harreman iraunkorra finkatzea.</p> <p>1.4.2. Haur zaintzaile erdaldunei eskaintzea, euren eginkizunetarako oinarrizko euskara gaitasuna eskuratzeko ez ezik, haurrekin euskaraz jarduteko behar dituzten askotariko baliabideak (haurrekin komunikatzerakoan erabiltzen diren esapideen errepertorioa, kantuak, askotariko materialak...).</p>

1 Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza

2. Jardun esparrua: Irakaskuntza

HELBURUAK	EKINTZAK
<p>2.1. Sentsibilizazioa. Lanbide heziketa eta batxilergoan euskarazko irakaskuntza zabaltzea (B eta D ereduak).</p>	<p>2.1.1. Lanbide heziketa eta batxilergoko atean dauden ikasleentzako eta haien gurasoentzako hitzaldiak eta beste zenbait ekintza antolatzea euskarazko irakaskuntzaren abantailen gainean.</p> <p>2.1.2. Soziolinguistikako mintegia eratzea DBHko 4. maila, batxilergo eta lanbide heziketako erdi eta goi mailako zikloetako ikasleekin.</p> <p>2.1.3. Ikasleen euskararekiko motibazioak lantzeko ekintzak garatzea (hitzaldiak, pertsona erreferentzialekin elkarrizketak, eta abar).</p> <p>2.1.3. Guraso ez euskaldunentzako berariazko euskara ikastaroak antolatzea, euren premietara egokituak .</p>
<p>2.2. Euskararen ikaskuntza eta erabilera praktikoa uztartzea Andoaingo eskoletan, euskara, erabilera akademikoko hizkuntza ez ezik, ikasgelatik kanpora ere ikasleen, irakasleen eta euren arteko ohiko harreman hizkuntza izateko bidean.</p>	<p>2.2.1. Eskola bakoitzean, euskararen irakaskuntza eta erabilera uztartzea helburu duen ekintza-proiektua definitu eta aurrera eramatea, hots, ikastetxearen hizkuntza proiektua.</p> <p>2.2.2. Euskara bigarren hizkuntza dutenek nahiz lehen hizkuntza dutenek, hizkuntza hegemonikoen indarraren testuinguruan euskaraz jarduteko estrategiak definitu eta garatzea.</p>
<p>2.3. Ikasgelaz kanpoko euskararen erabilera helburu duten egitasmoak sustatzea, ikasleen artean euskarazko harreman sareak sortu eta trinkotzeko bidean.</p>	<p>2.3.1. Ikasgelaz kanpoko askotariko ekimenak martxan jartzea: tailerrak, hitzaldiak, eta abar.</p> <p>2.3.2. Ikastorduen arteko atsedenaldietako aisialdian, eskolako patioan, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatzea.</p> <p>2.3.2. Gazteek euskarazko edukiak sor ditzaten aukerak eskaintzea (Bost txiki, Erreportari gaztea...).</p>

	<p>2.3.3. Zabalik / Nerabe Batzarra programak indartu, eguneratu eta sustatzea.</p> <p>2.3.4. Andoaingo ikastetxeetako ikasleek elkarrekin antolatzea euskararen erabilera areagotzeko aktibitate ludikoak.</p> <p>2.3.5. DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleen arteko tertulia moduko elkarrizketak antolatzea astero, online, beraiek nahi duten gaien inguruan hitz egiteko euskaraz (Mintzalagunaren nolabaiteko adar bat izan liteke).</p> <p>2.3.6. Gazteentzako erreferentzialak diren pertsonekin elkarrizketak eta mintzasaioak antolatzea, aurrez aurrekoak zein telematikoak.</p>
<p>2.4. Gazteen euskara gaitasuna hobetzeko baliabideak jartzea.</p>	<p>2.4.1. Eskolekin adostuta eta elkarlanean, Udalak antolatzea 16 urtetik behetiko gazteentzat errefortzu eskolak.</p> <p>2.4.2. Ahozotasuna eta euskarazko komunikagaitasuna lantzeko ekintzak sustatzea (Gu ere bertotan, antzezlanak, gazteen interesekoak diren gaiei buruzko aurkezpenak talde aurrean, eta abar).</p>
<p>2.5. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotzea.</p>	<p>2.5.1. Gazte Lokalak eta askotariko elkarteek gazteentzako antolatzen dituzten ekintzetan euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko irizpideak definitu eta aplikatzea.</p> <p>2.5.2. Eskolaz kanpo Andoainean diharduten askotariko prestakuntza organismoekin sustapen lana egin beren jardueretan euskararen erabilera areagotu dezaten, horretarako lankidetzak eskainiz (hizkuntza eskolak, pintura / argazki / eskulan... eskolak, hizkuntza eskolak, dantza eskolak, kiroldegia, Musika Eskola, kirol elkarteak).</p>
<p>2.6. Euskararen erabilera sustatzea eskola giroan, kudeaketako eta gurasoekiko harremanetako lan hizkuntza gisa.</p>	<p>2.6.1. Ikasgelaz kanpoko eskolako gunetan eta jardueretan (gurasoentzako hitzaldiak, eskolako jai eta ospakizunak, eta abar) euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea.</p>

	<p>2.6.2. Eskolako gurasoentzat antolaturiko ekintzetan eta gurasoen arteko batzarretan euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea, besteak beste aldibereko itzulpen sistema erabiliz, horretarako Udalak duen tresneriaz baliatuta.</p>
<p>2.7. Eragile guztien arteko koordinazioa eta lankidetzaren ahalbidetzea.</p>	<p>2.7.1. Ikastetxeen eta Udalaren arteko lankidetzaren eta koordinaziorako gunea indartzea.</p> <p>2.7.2. Andoaingo udalerriko eskolarteko ikasleen Euskara Sustatzeko Batzordea sortzea.</p>

1 Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza

3. Jardun esparrua: Helduen euskalduntze-alfabetatzea

HELBURUAK	EKINTZAK
<p>3.1. Euskaldun berriak sortzen jarraitzea, elebakarren zakua gero eta txikiagoa izateko bidean.</p>	<p>3.1.1. Euskara ikasten ari diren Andoaingo herritarrentzako dirulaguntza politikarekin jarraitzea, lehentasuna emanaz B2 ikasmaila arteko ikasleei (ikasmaila hori barne), betiere HABEren dirulaguntzekin bateragarritasunean eta balizko bikoizketa eta gainfinantzaketak saihestuz eta aprobetxamendu akademikoarekin uztartuz.</p> <p>3.1.2. Herriko euskaltegiaren jarduna errotik berrindartzea herriko helduen euskalduntze premietara egokituz, eta egokitze horretan kolaboratzea.</p> <p>3.1.3. Herriko euskaltegiko ikaskuntzako eskaintza integrala bermatzeko laguntzak ematea (autoikaskuntza...).</p> <p>3.1.4. Euskararen erabilera biziberritzeko interes bereizikoak diren arloetako hartzaileentzako berariazko ikastaroak antolatzea, Udalaren laguntzarekin kontatuz beharrezkoa bada (gurasoak, aitona-amonak, haur zaintzaileak, etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak, adinekoen zaintzarako askotariko zerbitzu-emaileak, merkataritza eta ostalaritza, etorri berriak...).</p> <p>3.1.5. Heldutan euskara ikasteko askotariko motibazioak lantzea: motibazio pragmatikoa, motibazio kulturala, integrazio sozialaren aldeko motibazioa, bizikidetzeta soziala hobetzeko motibazioa...</p> <p>3.1.6. Euskara ikasteko eta euskara gaitasuna sendotzeko premia eta sentiberatasuna zabaltzen jarraitzea.</p>

	3.1.7. Euskaraz ez dakitenengan euskararekiko jarrera positiboa piztu eta sendotzea.
3.2. Euskaldun berrien ahozko gaitasuna hobetzea.	<p>3.2.1. Euskaldun berrien ahozko komunikagaitasuna etengabe hobetzen laguntzeko ekintzak antolatzea Udalarekin, eskolekin eta enpresekin elkarlanean.</p> <p>3.2.3. "Andoaingo Mintzalaguna" eta gisa horretako egitasmoak sustatzea</p>
3.3. Euskaldun hartzailearen tipologia (elebitasun pasiboa) prestigiatzea eta handitzea.	3.3.1. Euskarazko ulermena Andoaingo gizartean heldu erdaldunen artean prestigiatzeko ekintzak garatzea, eta erdaldun elebakarrak A1 eta A2 ikasmailetako euskara ikasketak egitera bultzatzea, hartarako dirulaguntzak emanez eta ikasmaita horiek prestigiatuz eta euskararen oinarritzko ezagutzaren balioa aitortuz (norberarentzako balioa nahiz euskararen gizarte erabilera erraztekoa).

1 Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza

4. Jardun esparrua: Etorri berriak eta kulturartekotasuna

HELBURUAK	EKINTZAK
<p>4.1. Euskara etorri berriengana eramatea, hartarako berriazko programak diseinatu eta garatuz eta kulturartekotasun izpirituaz baliatuz.</p>	<p>4.1.1. Etorri berrientzako harrera protokoloaren barruan euskararen berri ematea, hala nola Andoaingo herritarren arteko harremanetan euskarak duen garrantzia azaldu eta euskara eskuratzeko dituzten aukeren berri ematea.</p> <p>4.1.2. Kanpotik etorritako gurasoei eta, oro har, etorri berri helduei berriaz zuzendutako sentiberatze saioak antolatzea, euskarak integrazioaren ikuspegitik eta helburu profesionalen interesetik begiratuta duen balioa ezagutaraziz.</p> <p>4.1.3. Berriaz etorkinentzat diseinaturiko AISA programak sustatzea, beharrezko denean dirulaguntza espezifikotarako aukera ezarriz.</p> <p>4.1.4. Etorri berriei euskaratik egitea beren jatorrizko hizkuntza eta kulturaren onarpena adieraziko duen harrera, ahal dela beren hizkuntza erabiliz eta, nolana ere, beren hizkuntza erabiltzera gonbidatuz.</p> <p>4.1.5. Etorri berri gazteentzat, hots, hezkuntza sistema arautuan sartzen direnentzat, euskarara erakartzeko integrazio-programak sustatzea eta euskara gaitasuna eskuratzeko programa gehigarriak eskaintzea (“Ongi etorri, gazte”, “Larunbatean ere euskaraz”, “Goazen jolastera” eta gisa horretako programak).</p> <p>4.1.6. Aisialdian, jatorriz bertakoak direnen eta etorri berrien arteko topaguneak eskaintzea.</p> <p>4.1.7. Euskara eskuratu duten eta euskaraz baliatzen diren herritar etorri berrien ibilbidea ezagutzera ematea.</p>

2 Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera	
5. Jardun esparrua: Administrazioa (Andoaingo Udala)	
HELBURUA	EKINTZAK
5.1. Andoaingo herritarren hizkuntza eskubideak herritarrei inolako eragozpen edo zailtasunik eragin gabe efektiboki errespetatzea, euskara ere izatea Andoaingo Udalaren jarduneko ohiko hizkuntza eta euskara izatea Udalaren zerbitzu hizkuntza ez ezik baita ere lan hizkuntza gero eta neurri handiagoan	Ikus jadanik indarrean dagoen <i>Andoaingo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018 - 2022)</i>

Andoaingo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018 - 2022), zeina Andoaingo Udalak Osoko Bilkuran ahobatez onartu baitzuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aldeko irizpenarekin, ESEPe honen osagarri da oso-osorik eta 5. jardun esparru hau osatzen du. ESEPe eranskin gisa jasota geratzen da, beraz, indarrean dagoen aipatutako EEPLA (Andoaingo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana).

2 Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera	
5. Jardun esparrua: Administrazioa (Andoaingo Bake Epaitegia)	
HELBURUA	EKINTZAK
5.2. Andoaingo herritarrek gertuenekoa duten justizia-administrazioan (Herriko Bake Epaitegia) euskara gero eta gehiago erabiltzea.	5.2.1. Herriko Bake Epaitegiarekin elkarlana gauzatzea bertako jarduneari herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzen laguntzeko eta hartarako erraztasunak emateko. 5.2.2. Andoaingo herritarren izen-deiturak euskarazko grafiaz inskribatzearen aldeko kanpainak bultzatzea.

2 Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

6. Jardun esparrua: Arlo sozio-ekonomikoa

HELBURUAK	EKINTZAK
6.1. Arlo sozioekonomikoan oro har euskararen erabilera areagotzea.	<p>6.1.1. Buruntzaldeko udalen arteko Gune sozioekonomikoaren eskutik eta aipatu eskualdeko udalekin lankidetzan, arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera prestigiatzeko sentiberatasuna sustatzea eta erabilera bera areagotzeko ekintzak gauzatzea.</p> <p>6.1.2. Enpresetako jarduera eta kudeaketan euskararen erabilera ere txertatzeko lanak sustatzea, enpresetako euskara planen diseinua eta garapena bultzatzeko laguntzak emanez.</p> <p>6.1.3. Arlo sozio-ekonomikorako udalak ematen dituen dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak txertatzea, nahiz establezimendu eta enpresentzako dirulaguntzetan hala ekintzaileei eskainitakoetan.</p> <p>6.1.4. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak babesteko neurriak hartzea, bereziki Andoaingo Kontsumitzailearen Bulegoaren eskutik.</p> <p>6.1.5. Andoaingo merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera bidegile izategatiko saria sortzea.</p> <p>6.1.6. Izaera ekonomikoa duten jardueretan herritarren aldetik euskararen erabilera areagotzeko sentiberatze lana egitea ("Errenta aitopena euskaraz" ekimena, finantza entitateetako euskarazko baliabideak gehiago erabiltzera bultzatzea...).</p>
6.2. Herriko askotariko zerbitzuetan hizkuntza paisaia euskalduntzea.	6.2.1. Esparru sozio-ekonomikoko askotariko establezimenduetan (industria enpresak, era guztietako zerbitzu enpresak, merkataritza eta ostalaritzako guneak, establezimendu publikoak oro har...) bertako hizkuntza paisaian euskarak duen presentzia ahalik eta

	<p>modurik xeheenean ezagutzeko azterlanak egitea.</p> <p>6.2.2. Aurreko puntuko establezimenduetan hizkuntza paisaia hobetzeko identifikatutako beharrak kontuan hartuz, herriko hizkuntza paisaia euskalduntzeko plana egitea.</p> <p>6.2.3. Establezimendu publikoetako errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz (ere) izateko dirulaguntzak eta aholkularitza teknikoa eskaintzea.</p>
<p>6.3. Merkataritza eta ostalaritzan, eta arlo sozio-ekonomikoan oro har, euskararen erabilera areagotzea, horretarako besteak beste lan prestakuntzan euskararen irakaskuntzari tokia eginez</p>	<p>6.3.1. Establezimenduetako produktu eta zerbitzuen berri bezeroei emateko erabiltzen diren errotulu, kartel, iragarki eta dokumentuak euskaraz jartzeko dirulaguntzak eta laguntza teknikoa eskaintzea.</p> <p>6.3.2. Merkataritza eta establezimenduetako langile eta zerbitzariari euskara gaitasuna eskuratzeko ikastaro bereziak eta eurentzako egokituak eskaintzea, euskara lanerako konpetentzia ere badenez.</p> <p>6.3.3. Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetan publikoarekin harreman zuzena duten zerbitzarien artean beren lanean euskara erabiltzearen aldeko sentiberatasuna eragitea ("lehen hitza euskaraz", ...).</p>
<p>6.4. Auto eskoletan euskararen erabilera areagotzea.</p>	<p>6.4.1. "Gidabaimena euskaraz" ekimena indartu eta premia berrietara egokitzea, auto eskolekin elkarlanean.</p>
<p>6.5. Merkataritzako establezimendu handietan euskararen erabilera bermatzea.</p>	<p>6.5.1. Andoainen kokatzen diren merkataritzako establezimendu "handietan" euskararen erabilera bermatzeko lankidetzaz zehaztea hitzarmen bidez (BM, Super Amara, Eroski, Mercadona...).</p>
<p>6.6. Arlo sozio-ekonomikoa eta hezkuntza sistema eraginkortasunez uztartzea eta, beraz, lanbide heziketan euskarazko irakaskuntza areagotzea.</p>	<p>6.6.1. Euskara eta lanbide heziketa lan mundurako zubi direnez, Andoaingo lanbide heziketako zentroetan (La Salle-Berrozpe, Escivi) hizkuntza proiektuak garatzen laguntzea euskarazko irakaskuntza hazi dadin.</p>

	<p>6.6.2. Lanbide heziketako ikasleek lan mundura hurbiltzean egin behar dituzten praktikak euskaraz egiteko aukerak bilatzea Andoaingo enpresetan.</p> <p>6.6.3. Lanbide heziketako ikasmaita eta ziklo ezberdinetarako ikasmaitaialak euskaraz sortzeko edo euskarara itzultzeko dirulaguntzak ematea Laneki proiektua babestuz.</p>
<p>6.7. Sektore sozio-ekonomiko eragileen arteko lankidetzatza areagotzea.</p>	<p>6.7.1. Arlo sozio-ekonomikoko eragileen (Salkin, ...) eta Udalaren artean hizkuntzatza gaietarako lankidetzatza iraunkorrerako sistema finkatzea.</p>

2 Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

7. Jardun esparrua: Aisia eta kirola

HELBURUAK	EKINTZAK
7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera areagotu eta indartzea.	<p>7.1.1. Andoainen aisialdirako ekintzak antolatzen dituzten Andoaingo nahiz Andoaindik kanpoko talde eta enpresekin eta, orobat, aisialdiaren antolakuntzan jarduten duten udaleko sailekin harreman finkoa izatea euskara eta aisialdia uneoro uztartuko dituzten ekimenak antola ditzaten.</p> <p>7.1.2. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki, baina ez bakarrik, haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan.</p> <p>7.1.3. Gazteen artean euskararen irudia eta balioa hobetzea eta indartzea, erabilera akademiko hutsetik haratago, eguneroko bizitzan harremanetarako, sorkuntzarako eta kontsumorako balioa duen hizkuntza gisa</p> <p>7.1.5. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, musika, telebista, kirola, eta abar), euskarazko ekimenak adin-tarte guztietako herritarrei eskaintzea.</p> <p>7.1.6. Haurrentzako ekintzak antolatzea urte osoan zehar: "Larunbatean ere euskaraz", "Ongi etorri, gazte!", ludoteka, "Goazen jolastera" eta jada antolatzen diren gisa horretako ekintzak indartzea eta ekimen berriak sortzea haurren apetak asetzeko egoki izango direnak (haurrentzako jolas parkeetan, eta abar).</p> <p>7.1.7. Adinekoentzat aisialdirako eta heziketarako diren jarduerak antolatzea, euskararen erabilera bermatuz eta sendotuz.</p> <p>7.1.8. Aisialdirako ekintzak antolatzeko dirulaguntzak ematen dituzenean eta arlo horretako ekintzak aurrera eramateko udal eraikinen erabilerak baimentzen dituzenean, Udalaren aldetik hizkuntza</p>

	<p>irizpideak arautu eta bete daitezen bermatzea.</p> <p>7.1.9. Andoainen aisialdian eragiten duten talde eta enpresekin aisialdian euskararen erabilera areagotzeko hausnarketa egin eta elkarlanerako irizpide eta lan ildoak adostea.</p>
7.2. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.	7.2.1. Bereziki haur eta gazteentzako antolatzen diren ekintzetako begiraleak eta dinamizatzailleak euskara gaitasun behar bestekodunak izan daitezen berme-neurriak hartzea.
7.3. Aisialdiko begiraleen euskara gaitasuna bermatzea	<p>7.3.1. Aisialdiko begirale edo zuzendaritarako ikastaroak euskaraz egiten dituzten andoaindarrei ikasketa horiek egin ditzaten dirulaguntzak ematea.</p> <p>7.3.2. Aisialdiko begiraleei beren jardunean euskararen erabilera sustatzeko estrategien gaineko prestakuntza eskaintzea.</p> <p>7.3.3. Bermatzea, Udalak antolaturiko aisialdi ekintzetan nahiz Udalak diruz lagundutakoetan, euskara gaitasun behar bestekoa duten eta aisialdi ekintzetan euskararen erabilera dinamizatzeko prestakuntza duten begiraleak aritzea.</p>
7.4. IKTak baliatzea aisialdian euskararen erabilera areagotzeko.	<p>7.4.1. Gazteen arteko komunikazio bide izan litezkeen ekimen telematikoak abiarazteko eta garatzeko lankidetzeta eta laguntza eskaintzea (tertuliak, norberak sorturiko bideoak partekatzea, jokoak, lehiaketak...).</p> <p>7.4.2. Andoaingo iraganeko gizarte bizitza eta kulturagintza belaunaldi berriei transmititzeko IKTek ahalbidetzen dituzten formatu telematikoak baliatzea, modu erraz, atsegin eta dibertigarrian.</p>
7.5. Etorri berriei euskarazko aisialdirako aukerak eskaintzea.	7.5.1. Berriarazko arreta eskaintzea etorri berrientzako aisialdiko ekintzak euskaraz eskaintzeko, betiere euren apetak eta zaletasunak kontuan hartuz eta jatorriz bertakoak direnen eta etorri berrien arteko topaguneak eskainiz.

<p>7.6. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen erabilera areagotu eta indartzea.</p>	<p>7.6.1. Andoainen kirol arloan diharduten era guztietako talde eta kolektiboekin elkarlana sistematizatu eta iraunkortzea, lehenik eta behin, kirol jardueretako euskararen erabilerari dagokionez indarguneak eta gabeziak identifikatzeko, eta, ondoren, euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko neurriak eta lankidetzak adosteko, hartarako hitzarmenak eginez.</p> <p>7.6.2. Eskola kirolari arreta berezia eskaintzea, eskolekin, guraso elkarteekin eta kirol teknikariek lankidetzak bideratuz.</p> <p>7.6.3. Ikusle eta jarraitzaile ugari biltzen dituzten kirol aktibitateetan euskararen presentzia bermatu formatu guztietan eta, gainera, euskaraz jardungo duten esatari/speaker/komentaristen figura erabiltzeko laguntza ematea.</p> <p>7.6.4. Kirol aktibitateen antolakuntza eta kudeaketaz arduratzen diren eragile ezberdinekin elkarlana gauzatzea (eskolak, herriko kirol elkarteak, askotariko federazioak, eta abar).</p>
<p>7.7. Kirolean euskararen erabilera prestigiatzea.</p>	<p>7.7.1. Kirol jardueretan oihartzun handia duten kirolari eta askotariko eragileekin (klubetako arduradunak, kazetariak, komentaristak, kirolari ohiak, eta abar) publikoari irekitako ekintzak antolatzea.</p>
<p>7.8. Udalak kirol ekintzetarako hizkuntza irizpideak eguneratzea.</p>	<p>7.8.1. Udal kiroldegiko programazioko euskararen erabilera gaur egun zertan den aztertzea (indarguneak, hobetu beharrekoak... identifikatzea) eta neurri zuzentzaileak hartzea.</p> <p>7.8.2. Udalak kirol taldeentzako finkaturik dituen dirulaguntzak ematerakoan, hizkuntza irizpideak aplikatzea euskararen erabilera bermatzeko Udalak diruz lagundutako kirol taldeen komunikazio orokorrean nahiz ekintzetan.</p> <p>7.8.3. Euskararen erabilera nabarmentzeko saria sortu, hartzaileak Andoaingo kirol taldeak, eskolak, kirolariak, begiraleak, entrenatzaileak... edozein izan daitekeelarik baldin eta kirolean euskara erabiltzerakoan nabarmendu baldin bada.</p>

<p>7.9. Kirol esparru osoko begirale, entrenatzaile eta kirolean diharduten haur eta gazteen kirol dinamizatzaileen euskara gaitasuna bermatzeko eta erabilera errazteko bidea egitea.</p>	<p>7.9.1. Haurrek eta gazteek praktikatzen dituzten kirol taldeetan kirolariekin harreman zuzena duten dinamizatzaile, begirale eta entrenatzaileek jardun horretarako behar besteko euskara gaitasuna izan dezaten laguntza ematea, eta aipatutako horiek guztiek beren jardunean euskararen erabilera sustatzeko estrategien gaineko prestakuntza eskura dezaten ere laguntza ematea.</p> <p>7.9.2. Kirol elkarteei eta, orobat, entrenatzaile, begirale eta dinamizatzaileei laguntza teknikoa ematea beren kirol jarduneko komunikazio hizkuntza euskara izateko erraztasuna eskura dezaten.</p> <p>7.9.3. Kirol entrenatzaile, monitore eta dinamizatzaileentzako irakas-materialak euskaraz izateko laguntzak ematea</p>
--	--

3 Helburu estrategikoa: Euskararen elikadura

8. Jardun esparrua: Kulturgintza

HELBURUAK	EKINTZAK
8.1. Iraganeko euskarazko kulturaren transmisioa bultzatzea.	8.1.1. Batez ere, ez soilik, Andoainen izan diren kultur sortzaile eta ekintzaileen jarduna transmititzea gaur egungo belaunaldiei, horretarako formatu eta material egokiak prestatuz eta hedatuz (Manuel Larramendi, Martin Ugalde, Rikardo Arregi, eta abar).
8.2. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.	8.2.1. Euskarazko kultur produktuak herritarrei oro har ezagutzera eman eta beren esku jartzeko ekintzen antolaketa bultzatzea eta laguntzea (arte eszenikoak, musika, literatura, zinea, bertsolaritza, hitzaldiak, askotariko proiektzioak, eta abar). 8.2.2. Herrian elkarte ezberdinek Udalaren laguntzaz antolatzen dituzten ekintzetan eta Udalak berak antolatzen dituenetan euskal kulturari lekua egitea eta komunikazioan euskararen erabilera bermatzea (herriko jaiak, ospakizun bereziak...) 8.2.3. Arreta berezia jartzea hauren eta gazteen kontsumorako euskarazko kultur produktuen zabalkundean. 8.2.4. Euskaldun pasiboentzako egokia diren kultur produktu eta emankizunak eskaintzea.
8.3. Maila ezberdinetako euskarazko sorkuntza sustatu eta ezagutzera ematea.	8.3.1. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria antolatzen jarraitzea. 8.3.2. "Erreportari Gaztea Saria", "Andoain laburrean" bideo lehiaketa, "Martin Ugalde ipuin lehiaketa" eta gisakoak antolatzen jarraitzea eta berrindartzeko beharrezko diren egokitzapenak egitea. 8.3.3. Herriko askotariko kulturgileen sorkuntza babestea.

	<p>8.3.4. IKTez baliatuz euskarazko ekoizpenak egiteko (bideoak, eta abar) eta sorkuntza prozesu horietan sortzaileen arteko sareak egituratzeko, hala nola ekoizpen hori ezagutarazteko gunea sortzea.</p> <p>8.3.5. Rikardo Arregiren obra osoa digitalizatu eta Interneten jartzea herritar oren esku.</p> <p>8.3.6. Bertso Eskola ea beste ezein sorgune babestea.</p> <p>8.3.7. Unibertsitate mailako uda ikastaroak euskaraz hartzeko laguntzak ematea Andoaingo herritarrei.</p>
<p>8.4. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea.</p>	<p>8.4.1. Udal liburutegian euskarazko liburuen presentzia bermatzen jarraitzea.</p> <p>8.4.2. Irakurle taldeak sustatzea eta beren proiektio publikoa babestea.</p> <p>8.4.3. Euskal testuen irakurketen antolaketa saioak sustatzea, udal liburutegiaren, eskolen, Bastero kulturgunearen eta herriko liburu denden parte hartzearekin.</p> <p>8.4.4. Udal liburutegian, eskoletan eta herriko liburu dendetan euskarazko liburuen eta idazleen sustapena egitea.</p> <p>8.4.5. Aiurri ezagunagoa izan dadin bere irakurketa sustatzeko neurriak hartzea.</p>
<p>8.5. Andoaingo ahozko eta idatzizko kultur ondarea ikertu eta ezagutaraztea.</p>	<p>8.5.1. Andoaingo ahozko eta idatzizko kultur ondarea jaso eta euskarri ezberdinetan eta publiko-mota bakoitzarentzako egokituta kaleratzea.</p>
<p>8.6. Andoaingo kultur eskaintzaren barruan euskarazkoa lehenestea.</p>	<p>8.6.1. Andoainen udal eraikinetan edo Udalak lagunduta herritarren eskura jartzen den kultur eskaintzaren barruan euskarazkoen eskaintza ahal den guztian bermatzea eta lehenestea, adibidez zineman, euskarri ezberdinak baliatuz.</p>

3 Helburu estrategikoa: Euskararen elikadura

9. Jardun esparrua: Euskararen corpusa

HELBURUAK	EKINTZAK
9.1. Herriko maila ezberdinetako toponimia jaso eta ikertzea, bizirik eusteko.	9.1.1. Andoaingo maila ezberdinetako toponimia, handienetik txikienera, jaso eta irizpide zientifikoaren arabera ikertu eta lantzea, euskarri ezberdinez baliatuz herritarrei ezagutzera ematea eta indarrean dagoen legeriaren arabera ofizialtzea.
9.2. Andoaingo euskaldunen hizkerak denboran zehar izan duen bilakaera jaso eta ezagutzea.	9.2.1. "Andoaingo ahotsak" ekimenaren barruan jasotako hizkera-testigantzak herritarrei oro har eta bereziki eskola garaiko gazteei ezagutzera emateko produktuak sortzea eta zabaltzea.
9.3. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.	9.3.1. Euskaldunen, bereziki gazte euskaldunen, euskara mintzatuaren adierazkortasuna indartzeko lagungarri diren ekintzak antolatzea (euskarazko testuen irakurketa publikoa, antzerkigintza, bertsogintza, eta abar). 9.3.2. Gazteen hizkerari arreta berezia eskaintzea helburu duten ekintzak aurrera eramatea (komiki lehiaketak, sare sozialetako euskarazko hizkera sustatzeko lehiaketak, eta abar).
9.4. Euskara erabilera publikoaren kalitatea zaintzea.	9.4.1. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzea, Euskaltzaindiaren arauak jarraiki, eta euskarazko testu publikoen komunikagaitasuna eta ulerterraztasuna bermatzea, horretarako guztiorretarako laguntza teknikoa emanez.

3 Helburu estrategikoa: Euskararen elikadura

10. Jardun esparrua: hedabideak eta IKTak

HELBURUAK	EKINTZAK
10.1. Euskarazko komunikazioa (informazioa, entretenimendua) bermatzea euskarazko hedabideen eskutik.	10.1.1. Aiurri toki hedabidea diruz laguntzen jarraitzea. 10.1.2. Aiurriren hedapen soziala, eragingarritasuna eta erakargarritasuna areagotzeari buruzko gogoeta MLK Brekin partekatzea .
10.2. Nagusiki gaztelaniaz ari diren hedabideetan euskarari leku handiagoa egitea.	10.2.1. Andoaingo informazio lokala eskaintzen duten eta herriko gorabeheren berri ematen duten hedabideetan -gaur egun nagusiki gaztelaniaz ari direnetan esan nahi da- euskarari toki handiagoa egiteko neurriak hartzen laguntzea.
10.3. Interneterako euskarazko edukiak sustatzea wikipedia eta sare sozialetarako edukiak sortuz.	10.3.1. Euskal Wikipediarako edukiak sortzea eta jada daudenak eguneratu eta osatzeko egin behar diren lanak sustatzeko neurriak hartzea, zehazki Andoainekin nolabaiteko lotura duten edukiak. 10.3.2. Askotariko enpresa eta merkataritza establezimenduek dituzten webguneetan euskararen erabilera gero eta handiagoa eta hizkuntzaren aldetik egokiagoa egiteko laguntza ematea. 10.3.3. Andoaingo gazteen artean sustatzea eta laguntzea beraiek egoki irizten dituzten edukiak sortzeko dinamika.
10.4. Webgune publikoetan areagotzea euskararen erabilera.	10.4.1. Andoaingo Udalaren euskarazko webguneak berrindartzeko neurriak hartzea (andoainarraeuskaraz.eus, rikardoarregikazetaritzasaria.eus) eta andoainarra.eus webgunean ere euskarazko edukiak sendotzea. 10.4.2. Buruntzaldeko Udalen arteko buruntzaldea.eus euskarazko webgunea sendotzen jarraitzea.

<p>10.5. Internet sarean dauden euskarazko edukien berri ematea.</p>	<p>10.5.1. Gurasoei, hurrei, gazteei eta publiko zabalari bakoitzaren erabilerarako baliagarri diren eta jada Interneten eskura dauden edukiak, eta horiek eskuratzeko modua, ezagutaraztea.</p>
<p>10.6. IKTak erabiltzeko prestakuntza euskaraz ere izatea.</p>	<p>10.6.1. KZ guneko eta beste edozein arlotako programazioetan IKTak erabiltzeko eskaintzen diren prestakuntza saioak euskaraz ere izan daitezzen bermatzea.</p>
<p>10.7. Publizitatean euskararen erabilera areagotzea.</p>	<p>10.7.1. Kaleko hizkuntza paisaia euskalduntzeko bidean, establezimendu pribatuetako errotulazioa euskaratzeko dirulaguntzak eta hizkuntza aholkularitza ematea.</p> <p>10.7.2. Euskarazko publizitatea sustatzea, Andoaingo enpresa, merkataritza establezimendu edo edonolako elkartek euskaraz egindako publizitatean egokiena den hura nabarmentzeko Saria sortuz.</p>

Zehar lerroak

11. Sentiberatzea, motibazioa, aktibazioa

Herritarrak dira Andoainen ere euskara biziberritzeko giltzarri nagusia. Herritarrak dira protagonista nagusi, eta hiztunak dira udal hizkuntza politikaren erdigunea betetzen dutenak. Gakoa da herritarrek proiektu komunitario eta kolektibo gisa bere egitea euskara biziberritzearen eta euskara eguneroko harreman hizkuntza izatera iristearen proiektua. Proiektu horrek babes, laguntza eta sustapen ugari behar ditu, eta horretara dator, besteak beste, ESEP. Andoaingo gizartea askotarikoa da hizkuntza kontuei dagokienez ere, askotariko bizipen linguistikoak dituzten herritarrek osatua baita. Horrexegatik da beharrezkoa euskara biziberritzen jarraitzeko motibazioak lantzea, askotariko motibazioak, baztergarri ez diren neurrian guztiak direlarik positiboak. Horrexegatik da beharrezkoa ahalik eta adostasun sozial eta politikorik zabalenean oinarritzea ESEP honen eskutik garatu nahi den politika. Andoaingo euskaldunen aktibazioa da lehentasunetan lehentasun, eta erdaldun elebazarrek euskararantz pausoak ematea eta euskararen erabilera sustatzeko neurriekiko elkartasuna izatea oso lagungarri dira. Ildo hori indartzeko sentiberatze lana komenigarria ez ezik oso beharrezkoa da.

Sentiberatzeak eta motibazioak lantzeak besteak beste honakoak eskatzen ditu: euskararekiko atxikimendua sendotzea, euskararen erabileraren prestigioa areagotzea gizarte-bizitzako arlo guztietan, Udalaren jarduna eta herrian preskriptore eta erreferente diren pertsona eta elkarten hizkuntza erabilera eredugarriak izatea, euskara komunikatiboa eta erraza baliatu eta zabaltzea, euskara balio positibo eta garaikideekin uztartzea, euskara biziberritzearen aldeko komunikazio politika eraginkorra eta erakargarria egitea, euskararen erabilera bermatua duten harreman sareak sustatzea, Andoaingo gizarte bizitzako askotariko eragileen -publiko nahiz pribatuen, udalaren, eskolen, kirol taldeen, kultur elkarten, aisialdiko elkarten, arlo sozio-ekonomikoa osatzen duten enpresa eta elkarten, gizarte zerbitzuetako elkarten...- arteko elkarlana indartzea. Azken batean, erronka da, euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, aukera horietaz gero eta jende gehiago arlo gehiagotan baliatzea eta euskarazko jarduna erakargarri eta baliagarri izatea. Hori baita bidea euskara Andoaingo egunerokoan gero eta harreman hizkuntza ohikoagoa izateko.

Finean, euskarazko jardunaren eta euskararen erabileraren erakarmena eta prestigioa areagotzea da euskara biziberritzeko ezein arlotan egiten den edozerk bete behar duen funtzioa. Eta ulertu behar da hori denen egitekoa dela, bakoitzak berari dagokion erantzukizun-mailaren eta dituen ahalbideen arabera, baina denek denek eginkizuntzat hartzen duten neurrian egingo dugu aurrera. Horrek, Udalari dagokionez, esan nahi du, besteak beste, Udala bere osotasunean dagoela deitua ESEP honen garapenera, hots, Udaleko ordezkari politiko guztiek eta Udaleko Sail guztiek izan behar dutela kontuan, zehar-lerro moduan, bakoitzak bere arloko lanak egiterakoan, euskararen erabilera, indarrean dagoen EEPLAN aurreikusi legez.

Aktibazioak eskatzen du herritarren arteko hizkuntza ohiturak pixkanaka baina eten gabe aldatzen joatea euskarazko mintza jardunaren mesedetan. Horretarako baliatu beharko dira Andoainez gaindiko ekimenak (Euskaraldia, Euskararen Nazioarteko Eguna...) eta Andoainen bertan ESEP honetako hamar jardun esparruetako bakoitzean diseinaturikoak. Horretarako pausoak eman beharko dira

askotariko elkarteetan hizkuntza irizpideak onartu eta aplikatzeko. Horretarako beti bermatu beharko da euskarazko jarduna modu positibo eta bateratzailean komunikatu eta proiektatzea. Euskararen irudiak nahitaez positiboa izan behar du herritar gehien gehienentzat: positiboa, gehienentzat integratzailea izan dadin eta gehienei eguneroko bizitzarako tresna baliagarria izan dakien. Horrek besteak beste eskatzen du ESEP garatzeko sustatutako ekimenak herritar gehienen ahalmen eta gogoen neurrikoak izatea.

Aurreko pasarteetan azaldutako ikuspegiak ESEPen harian garatzen diren ekimen guztiak blaitu beharko ditu.

Zehar Ierroak

12. Kanpo proiektzioa

Kanpo proiektzioari dagokionez, Andoaingo Udalak eskura duen lan arloa nazioarteko hizkuntza lankidetzarena da. Euskara biziberritzeko prozesua, bere argi-ilun guztiakin, munduan zehar hizkuntza gutxituak dituzten herrialde askotan interesa eta jakin-mina pizten duen prozesua da. Euskal erakunde guztien eginbeharra da bakoitzaren ibilbidearen berri ematea hori ezagutzeko interesa eta premia duten munduko hainbat herrialdeetako askotariko erakunde eta ekintzaileei. Euskaditik garatzen ari den nazioarteko hizkuntza lankidetzaren testuinguruan, beraz, Andoaingo Udalak euskara biziberritzeko bidean hainbat hamarkadatan metatu dituen ezagutza eta eskarmentuaren ekarpena egingo du munduan zehar hizkuntza gutxituak biziberritzeko abian diren prozesuetarako, aldi berean prozesu horietako esperientziak ere bereganatuz, haietatik ikasi ahal dena ikasiz. Arlo honetan, nazioarteko hizkuntza biziberritze prozesuei dagokienez, Andoaingo Udalarentzat lehentasuna izango dute udalerrri mailako eta administrazio arloetako hizkuntza-lankidetzek, arlo horietakoa delako Udalak metatua duen esperientzia.

4.6. LEHENTASUN NAGUSIAK

Ondorengoak dira ESEP honen eskutik Andoaingo Udalak 2020-2025 urtealdian garatuko duen hizkuntza politikako ildoen artean lehentasun nagusiak:

- Euskal hiztunak aktibatzea, hots, euskal hiztunen komunitatea trinkotzea, bi hizkuntzen artean euskararen hautua gero eta gehiagotan egin dezaten, esparru formalean nahiz ez formalean. Horretarako behar dira euskararen erabilera aukerak sendotu eta gehiagotu eta, orobat, euskaraz jarduteko ohitura naturalizatu eta hedatu.

- Euskara etxetik lehen hizkuntza dutenek hala mantendu dezaten ahalegintzea.

- Euskaldun berriek ere euskararen erabilerari eguneroko bizitzan pixkanaka gero eta leku handiagoa egin diezaioten aukerak eskaintzea, euskara inorentzat izan ez dadin "hizkuntza akademiko" hutsa edo hizkuntza gehigarri soila.

- Familia bidezko transmisioa bermatzea, edozein delarik ere guraso euskaldunen hizkuntza tipologia (guraso biak euskaldunak, biak lehen hizkuntza euskara dutenak, biak euskaldun berriak, bata euskaldun berria eta bestea euskaldun zaharra, bata euskalduna eta bestea erdalduna, ...), euskara (ere) belaunaldi berrien lehen hizkuntza izan dadin.

- Euskal hiztun berriak sortzen jarraitzea, ezagutzaren unibertsalizatorako bidean. Horrek eskatzen du, batetik, eskola giroan euskara ikasgelaz kanpoko ahozko komunikatorako hizkuntza gisa sendotzea eta, bestetik, helduen euskalduntzea errotik berrindartzea. Euskaldun berriekin etorri da euskararen hazkundera eta euskaldun berri gehiago behar ditugu hazten jarraitzeko.

- Haur eta gazteen hizkuntza erabileretan euskararena sendotzea eta areagotzea, euskararen hautua gero eta gazte gehiagoren aldetik ohikoagoa eta naturalagoa izan dadin esparru ez formalean ere, aurreratxoago aipatuko ditugun arrazoiengatik.

- Aisialdiko jardun ugarietan, bereziki kirolgintzan, eta zerbitzugintzan oro har (merkataritza, ostalaritza, kulturgintza, hedabideak...) euskararen erabilera sustatzea. Kirol arloko entrenatzaile, monitore eta askotariko zerbitzu-emaleei arreta propioa eskaini behar zaie hizkuntza erabilerei dagokienez.

- Andoaingo lanbide heziketa eta lan munduan euskara komunikazio-tresna izateko neurriei bidea irekitzea.

- Udal zerbitzuetan, hizkuntza eskubideak egiazki errespetatzeaz gain, euskararen erabilera sustatu eta bermatzea lan eta zerbitzu hizkuntza moduan, zehazki Musika Eskolan, Kiroldegian eta adinekoentzako zerbitzuetan.

- Etorri berrientzako programa berariazkoak diseinatu eta garatzea, hartzaileen ezaugarri eta premia espezifikoaren arabera.

Lehentasun nagusietan haur eta gazteen hizkuntza erabileretan interbenitzea azpimarratzen da hain zuzen ere gazteen giza taldea lehenesten delako. Gazteak lehenesteak ez du esan nahi, gutxiagorik ere, helduen eta adinekoen garrantzia, zeina askotan erabatekoa baita, gutxiesten denik euskara biziberritzeko bidean Andoainen. Are gehiago: helduen hizkuntza portaerek neurri handian baldintzatzen dituzte, zenbaitetan, gazteen hizkuntza ohiturak. Gazteen gizataldea Andoainen ere

lehenestearen arrazoiak “Eta hemendik aurrera zer?”⁵ dokumentuan, “Lehentasunen marko baterantz” atalean, zehaztuta daudenak dira.

ESEP hau tresna gidaria da Andoaingo Udalaren 2020-2025 urtealdiko hizkuntza politikarako, zeinak arrakasta izango badu beharrezkoa izango baita Andoaingo gizartean ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handienaren babesa izatea eta ESEPen garapena aurrera eramatea ahalik eta modurik egingarrienean, progresibotasunean eta etengabe aurrerantz jarraitzeko konpromisoan oinarrituta, denok elkarrekin, gaur egun “denon ondarea” den euskara etorkizunean “denon hizkuntza” izatera iristeko bidean pausoak emanez. Herritar guztiak kontuan hartuko dituen politika izango da ESEPen eskutik egingo dena, egingarria, aurrera egiteko balio duena, herritarren inplikazioa ahalbidetuko duena eta erritmoak herritarren ahalmen eta borondatare egokituko dituena, herritarren euskararekiko atxikimendua eta askotariko motibazioak sustatu eta motibazio berriak landuko dituena, adostasunean oinarrituko dena.

Herritarra eta hiztuna erdigunean dituen politikak ezinbestez eskatzen du, eragingarria izango baldin bada, inplikaturako eragile guztien elkarlana sustatzea eta egituratzea, Udala eta herriko askotariko eragile sozial, kultural eta ekonomikoak, eskolak barne, hala nola euskara indartzeko lanean ari diren talde euskaltzaleen ahaleginak bateratzea.

Andoaingo Udalak, ESEP honen garapenean, zehar-lerrotzat hartuko du euskararen erabilera sustatzeko politika, Udal osoaren eta bere Sail guztien eginkizun gisa.

⁵ “Euskararen hazkundeak gazteen eskutik etortzen jarraituko duelako; gazteen artean kontzentratzen direlako euskaldunen proportziorik nabarmen altuenak; euskaraz hazi, formatu eta hezitako belaunaldiak izango ditugulako; gazte euskaldun guztiak euskaraz alfabetatuak direlako; unibertsitate ikasketadun gazteen portzentajeak Europako altuenetakoak direnez etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daudelako. Ez badugu nahi gazteek euskara soilik hezkuntzarekin eta derrigortasunarekin lotzea, beharrezkoa genuke euskarari buruz duten/dugun ideia mudatzea. Euskarazko jarduna erakargarri izan behar zaigu, zerbait desberdina eskaini behar die euskarak gazteei, beste hizkuntzek ez duten xarma, komunikazio-tresna huts izatetik haratago, erabilgarritasunetik haruntzago. Euskara gazteen ohituretara, disfrutatzeke erabiltzen dituzten eremuetara eta teknologia berrietara eraman behar dugu”.

Euskararen Aholku Batzordea – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: *Eta hemendik aurrera zer?* Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2016.

5. ADIERAZLE PANELA

Ondorengo taulan jarraipenerako adierazleak jaso dira, euskararen jabeakuntza, erabilera eta elikaduraren helburu estrategikoei lotutako adierazleak, hain zuzen ere. Kontuan hartu behar da, ESEPen adierazle orokor hauek urtez urteko kudeaketa planetan zehaztuko diren ekintzen jarraipenerako finkatuko diren adierazleekin osatuko direla.

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN JABEKUNTZA
- Euskararen ezagutza (%)
- Euskara ikasten ari direnak (%)
- B2 maila lortu dutenak (%)
- Euskara ikastea erabaki duten etorri berriak (%)
- Euskarazko irakaskuntza lanbide heziketan eta batxilergoan (%)
2. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA
- Euskararen erabilera kalean (%)
- Erabilera aisialdian eta kirolean haur eta gazteen artean (%)
- Euskararen erabilera kirol elkarteek eskaintzen duten zerbitzuan (%)
- Herritarrekiko harreman hizkuntza Udalean (%)
- Udalarekiko harreman hizkuntza (%)
- Udalarekin harremana euskaraz izatea eskatu duten herritarren zentsua (%)
- Erabilera zenbatekoa den izaera ekonomikoa duten zenbait jardueratan (<i>errenta aitortpena, finantza erakundeekiko harremanak...</i>) (%)
- Establezimenduen atxikimendua euskararen erabilerarekiko (<i>bisitak/atxikimendua</i>) (%)
3. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ELIKADURA
- Andoaingo kultur eskaintzan euskarazko eskaintza zenbatekoa den (%)
- Euskaraz sortutako eduki berriak formatu desberdinetan (%)
- Udalak euskarazko hedabideei emandako diru-laguntzak
- Euskararen presentzia Andoaingo hedabideetan (%)
- Euskararen presentzia publizitatean (%)

6. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

ESEPen aplikazio eta garapenerako urtean urteko kudeaketa planak egingo ditu Euskara Sailak 2020-2025 urtealdian. Horrela, bada, ESEPen beraren eta urtez urteko kudeaketa planen jarraipena eta ebaluazioa egingo du Udalak, honako organo hauen eskutik:

- Euskara Zerbitzua
- Euskararen Normalizaziorako Batzordea, zeina Udaleko talde politiko guztien ordezkariak osatzen baitute.

- Jarraipen Batzordea, zeina honakook osatuko baitute:

- * Alkatea
- * Euskara arloko zinegotzi arduraduna
- * ENBAko zinegotziak
- * Euskara Zerbitzuaren arduradun teknikoa
- * Kultura eta Hezkuntza Saileko teknikari arduraduna
- * Enplegu, Sustapen Ekonomiko eta Gazteria Saileko teknikari arduraduna
- * Gizarte Zerbitzuetako teknikari arduraduna
- * Andoingo eskoletako ordezkari bana
- * Euskaltegiaren zuzendaria
- * Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren presidentea
- * Gazte Lokalaren ordezkaria
- * Andoingo elkarteetako bi ordezkari
- * Andoingo Udaleko Euskara arloko zinegotzi arduradunak egoki irizten duen edonor gonbidatu ahal izango du Jarraipen Batzordearen batzarre eta lanetan parte hartzera. Euskara Zerbitzuko administraria arduratuko da Jarraipen Batzordearen kudeaketa administratiboaz.

ENBAk etengabeko jarraipena egingo du urte osoan zehar eta Jarraipen Batzordeak urtean gutxienez bi batzar izango ditu. Horietako bat urte amaiera aldean izango da, urteko balorazioa eta ebaluazioa egin eta, beharrezko irizten badu, aurrera begira zuzenketak aplikatzeko edo ekimen berriak abiarazteko. Nolanahi ere, Euskara arloko zinegotzi arduradunak beharrezko irizten duen guztietan deitu ahal izango du batzartzera Jarraipen Batzordea. Batzorde kideen heren batek eskatuta ere batzarrerako deialdia egingo du Euskarako zinegotzi arduradunak.

Euskara Zerbitzua izango da ESEPen garapenaren kudeaketaz eta egokitasun teknikoaz arduratuko dena.

ESEPen ebaluazioa aipatutako organoek egingo dute, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gisa honetako Plan Estrategikoen jarraipen eta ebaluaziorako ezartzen dituen mekanismoak baliatuko dira.